# Goienkaria

2007ko maiatzaren 4a > Egubakoitza > VII. urtea > 286. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"Txinak baldintzak aldatu ditu, ume bakoitzeko hamar eskaera daudelako"

**Ana Gillegi**
Anichi elkarteko kidea > 07

**G2a** Magorik onenak Elgetako Magia Mostran > 25

**ARRASATE**
**Gesalibar auzoak dituen beharren gaineko azterketa egingo dute** > 12

**BERGARA**
**Kilometroen aldeko mendi aste bukaera antolatu dute** > 15

**ARETXABALETA**
**Industrialde berria egitea aztertzen dabiltza** > 18

**ERRENTA AITORPENA** > AITORPENAK EUSKARAZ EGITEKO KANPAINA ABIARAZI DUTE

# Oraindik ere gutxik egiten dute errenta aitorpena euskaraz

**HITZARMENA** Aldundiak, Eudelek eta Kutxak sinatu berri dute, aitorpena euskaraz egiteko baliabideak ugaritzeko

**PROTOKOLOA** Ogasun bulegoetako langileei zuzenduta dago, herritarrak errenta euskaraz egitera anima ditzaten

**INKESTAK** Bergarako bulegoan 200 egingo dituzte, herritarrak protokoloarekin konforme dauden jakiteko > 34

**DEBAGOIENA** > DANTZA

## Ibarreko dantzarien biltzarra

Arrasaten egingo dute, bihar, eta lau herritako 180 dantzari inguru batuko dira > 09

## Zubillagako parkea ondo prestatuta dago, baina suhiltzaile gutxirekin

GOIENKARIAk bertatik bertara ikusi ahal izan du Zubillagako suhiltzaileek zelan egiten duten lan. Lau lagunez osatutako taldetan banatuta, iaz 300 larrialditan hartu zuten esku. Bizkaian eta Araban, larrialdi kopuru hori duten parkeek zortzi lagun dituzte errelebuko. Hala, Zubillagan seiko taldeak eskatzen dituzte: "Larrialdiari hobeto erantzutearekin batera, suhiltzaileak segurtasun handiagoarekin egiten du lan", esan digu taldeko arduradun Mikel Larrañaga antzuolarrak. > 02-03



**EGOERA BAKOITZERAKO KAMIOI BAT** Larrialdiaren arabera tresneria ezberdina erabiltzen dute; irudian, Juan Abuelo eta Antton Santo. XABIER URTZELAI

AURKIBIDEA

**Asteko gaia** > 02-03
**Debagoiena** > 04-05
**Gutunak** > 06
**Elkarrizketa** > 07
**Herriak** > 09-23
**Kirola** > 24
**Kultura** > 26
**Gazteak** > 27
**Sailkatuak** > 28
**Eskelak** > 29
**Telebista-Irratia** > 30
**Non-zer** > 31






**LARRIALDIAK** > EGUN BAT ZUBILLAGAKO SUHILTZAILE PARKEAN

# Hogeita sei suhiltzailek egiten dute lan Zubillagako parkean, txandaka

**LAUKO TALDEAK** Zubillagako parkean dauden suhiltzaileak lauko taldetan banatzen dira; aste barruan goizez, arratsaldez eta gauez egiten dute lan

**24 ORDU** Aste bukaerako txandak, berriz, 24 ordukoak izaten dira, eta, hain zuzen, txanda hori gura izaten dute suhiltzaile gehienek

**BIZKAIAN, HOBETO** Horixe onartu digute suhiltzaileek; Bizkaiko suhiltzaileek egoera hobean egiten dutela lan, bitarteko gehiagorekin

**XABIER URTZELAI** > ZUBILLAGA

Egubakoitz arratsaldea da, eta, parkeko arduradunari baimena eskatu eta gero, guardiako txandan dauden Mikel Larrañagak, Juan Abuelok, Antton Santok eta Josu Peredak ezin hobeto hartu gaituzte. Eurek osatzen dute Zubillagako suhiltzaile parkeko taldeetako bat, eta eurek onartu moduan, suhiltzaileek familia txiki bat osatzen dute: "Emaztearekin baino denbora luzeagoa igarotzen dugu hemen elkarrekin", esan digu Larrañagak, "eta batzuk gustura etortzen dira, gainera", esan du barre eginez Peredak. Lasai daude, arratsalde lasaia delako. Oraingoz.

**SUHILTZAILE BATEN EGUNEROKOA**

Hori da Josu Pereda suhiltzaile arrasatearrari galdetu dioguna, zelakoa den suhiltzaile baten egunerokoa: "Iritsi eta egiten dugun lehenengo gauza norberaren ekipoa gainbegiratzea izaten da. Walkie-talkieak, linternak... gainontzeko lankideekin partekatzen ditugu, eta ondo dabiltzala ikustea da lehenengo eginbeharra. Gero, kamioiak ateratzen ditugu paseatzera, itzuli txiki bat egin eta dena behar den moduan dagoela ikusteko".

Ondoren, suhiltzaileek praktika bat egiten dute: "Guztira 200 praktika inguru egongo dira, egoera ezberdinen aurrean zelan jokatu jakiteko balio dutenak: auto istripuak, sutea mendian, sutea etxebizitza batean, sutea enpresa batean... Bi ordu inguru erabiltzen ditugu horretan, eta ondoren, kamioi bat goitik behera gainbegiratzen dugu: nibelak, gainontzeko aparailuak... Dena puntuan jartzea, azken batean". Ondoren etortzen da kirola egiteko ordua: "Hemen zorte handia daukagu, korrika egiteko zirkuitu txiki bat daukagu-eta. Ezin gara suhiltzaile parketik askorik aldendu, eta inguruan ibiltzen gara korrika. Beste batzuek, berriz, nahiago izaten dute gimnasioan ditugun aparailuetan ibili; bizikleta finkoan, adibidez", esan digu Peredak.

**"Materiala gainbegiratu eta gero kamioiak paseatzera ateratzen ditugu, itzuli txiki bat egin eta dena behar den moduan dagoela ikusteko"**

**SUPERGIZONIK, EZ**

Jakinekoa da gaur egun suhiltzaile izateko azterketa gogorrak gainditu behar direla. Fisikoki ondo egotearekin batera, gogor ikasi behar da: "Dena dela, ez dut uste suhiltzaile arduradunek fisikoki oso-oso ondo dauden gazteak bakarrik gura dituztenik; esango nuke gehiago baloratzen dutela hainbat ofiziotan ondo moldatzen den jendea, eta baita lanbide horrekin konpromisoa erakusten dutenak ere", esan digu Peredak. Parkeko bigarren solairuan daukaten sukaldean ari gara berbetan, eta, halako batean, 18:15ean, parkeko alarmak jo du.



AZKARTASUNA EZINBESTEKO Dagoeneko suhiltzail

**ABISUA BITERI KALETIK**

Zubillagan dauden lau suhiltzaileek segundoak behar izan dituzte elkarrizketa eten, txamarrak

mikro gunea
Mikroenpresarentzako gunea
Un espacio para la microempresa

Jardunaldia: Belaunaldien arteko errelebua merkataritzan.

Antolatzailea:
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Babesleak:
eQual
UNIÓN EUROPEA
Fondo Social Europeo

- **Norentzat:** Debagoieneko merkatarientzat.
- **Noiz:** Maiatzak 8, asteartea.
- **Lekua:** Kulturate (Arrasate).
- **Ordutegia:** 14:00-16:30.
- **Antolatzailea:** Debagoieneko Mankomunitatea
- **Laguntzaileak:** Aretxarte, Bedelkar, Ibaiarte eta Txanda.
- **Gai zerrenda:**
  - Belaunaldien arteko errelebuaren arrakasta.
  - Denda eta familia: bi errealitate.
  - Txikikazko merkataritzaren formazioa eta profesionalizazioa.
  - Oinordetza planifikatzeko faktore erabakigarriak.



e parkeetako sinbolo bilakatu den txirrista da goiko solairutik jaisteko modurik azkarrena. Irudian Juan Abuelo. XABIER URTZELAI

eta kaskoak jantzi, bi kamioi martxan jarri eta alde egiteko. Taldeko arduradun Larrañagak erabaki du Abuelo parkean geratzea, eta gainontzeko hirurek alde egin dute. Oso azkar gertatu da dena. Abuelok esan digu Arrasatetik jaso dutela abisua, Biteri kaletik. Kamioiak, baina, bi minutuan itzuli dira, abisua bertan behera geratu den seinale.

**LAU KAMIOI ETA HAINBAT AUTO**
Guztira lau kamioi dituzte Zubillagako parkean, larrialdi egoera bakoitzean erabili ahal izateko: "Kamioietako bat erretiratu egin behar zuten, zaharra delako. Baina suhiltzaileok eskaria egin dugu horrelakorik ez egiteko, ederto dabilelako. Hori bai, barruko guztia berritzera eramango dute, eta tresneria berriarekin hornitu".

**Mikel Larrañaga** > Suhiltzailea

## "Sirena hotsa entzundakoan, adrenalinak gora egiten du"

**X.U.** > ZUBILLAGA

**Mikel Larrañaga antzuolarra suhiltzaile taldeko kaboetako bat da. Lau laguneko taldean arduradun lana egiten du, eta hark eman dizkigu lanbide horren xehetasun gehiago.**



X.U.

**Zeintzuk dira zeuen lanbidearen alde on eta txarrak?**

Hori suhiltzaile bakoitzak erantzun beharko luke, baina niretako pozgarria da ikustea gure lanbidean jendeari lagundu egiten diogula, horrek bete egiten nau. Bestalde, beharra duen pertsona horren alde ezin dela ezer egin ikustea gogorra izaten da.

Horrekin batera, asteburuetan eta jaiegunetan lan egitea ez da gustukoa izaten, baina gero egunak izaten ditugu ordainetan; horrenbestez, horretara moldatzea da kontua.

**Urtean 300 interbentzio inguru izaten dituzue.**

Bai, hori diote estatistikek. Gutxi gorabehera 100 irteera suteengatik izaten dira, beste 100 istripuengatik, eta geratzen direnak gas isurketak, urak sortutako kalteengatik...

**Gogoan dituzun azken irteera garrantzitsuak?**

Bi esatearren, Garagartza ondoan erre zen Multifood enpresako suteak lanak eman zizkigun. Goizetik hasi ginen lanean, eta gauean oraindik han geunden. Horrekin batera, gogoan dut, baita ere, Roneoko etxeetan Caixako egoitzari sua eman ziotenekoa. Harrituta geratu nintzen suak zeukan indarrarekin eraikinak zein kalte txikiak izan zituen. Etxe horiek material onarekin daude eginda.

**Ez da izango gozoa lasai egon eta batbatean sirena hotsa entzutea.**

Zein larrialdi den jakiteko, egoera bakoitzean sirenak zarata ezberdina ateratzen du –hainbat froga egin ditugu–. Eta, ez, sirena hotsa entzutea ez da pozgarria izaten; lo gaudenean, batez ere. Nire kasuan, sirena hotsa entzundakoan adrenalinak gora egiten du, lana daukagun seinale.

## Gipuzkoan hiru anbulantzia medikalizatu daude eta Elgoibarren dugu gertukoena

Hori da suhiltzaileek egin duten eskarietako bat, Debagoienean ez dagoela anbulantzia medikalizaturik: "Gipuzkoa osoan hiru anbulantzia medikalizatu daude. Donostian bat, Tolosan bigarrena eta Elgoibarren hirugarrena". Hala, Elgoibarkoa da gertuen daukaguna, eta ez da nahikoa. Horrekin batera, Bizkaiko eta Arabako suhiltzaileekin alderatuta, gipuzkoarrek baliabide gutxiagorekin egiten dute lan: "Hemen txanda-taldeak lau lagunek osatzen dituzte, eta beste lurraldeetan sei lagun daude taldeko. Horrek segurtasuna ematen du, larrialdi baten aurrean hobeto erantzutearekin batera suhiltzaileok segurtasun handiagoarekin egiten dugulako lan".



**OGASUNA** > ALDUNDIAK, EUDEL-EK ETA KUTXAK HITZARMENA SINATU DUTE

# Errenta aitorpena euskaraz egiteko baliabideak ugaritzen ari dira ibarrean

Errenta aitorpenaren kanpainak aurrera jarraitzen du; euskaraz egiteko dei egin dute Kutxak eta instituzioek. Hitzarmena sinatu dute horren harira



**BERGARAKO BULEGOA** Jende asko pasatzen da egunotan Bergarako bulegotik errenta aitorpena egiteko. MIRIAN BITERI

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Errenta aitorpenarekin burubelarri dabiltza ibarreko herritarrak. Apirilaren 20an hasi zen eta ekainaren 29an amaituko da aurtengo kanpaina.

Joan zen eguaztena arte, 776k egina zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak Bergaran duen ogasun bulegoan. 664 kasutan dirua itzuli beharko du Aldundiak; guztira, 829.694,37 euro. Gainontzeko 112 herritarrek, berriz, 89.491,98 euro ordaindu beharko dituzte.

Orain arte, 3.413 txanda hartu dira: 1.754 Internet bidez eta 1.659 telefonoz. Oraindik, hala ere, asko falta da kanpaina amaitzeko eta jende askok ez du hitzordurik eskatu. Foru Aldundiak jakinarazi duenez, 7.986 pertsona falta dira txanda hartzeko.

**KOPURU TXIKIA**

Errenta aitorpena euskaraz egiten dutenen kopurua oso txikia da. Horren harira, Aldundiak, Eudelek eta Kutxak hitzarmena sinatu berri dute euskararen erabilera bultzatzeko asmoz. Adostutako neurrien artean, errenta aitorpena euskaraz egiteko baliabideak martxan jartzea dago.

Gipuzkoako Euskararen Normalizaziorako Zuzendaritzako Joxean Amondarainek azaldu duenez, orain dela "hiru edo lau urte" protokolo bat aplikatzen hasi zen Aldundia.

Bulegoko teknikarien jokaera zehazten da horretan. Batetik, errenta aitorpena egitera joaten direnak euskaraz agurtzea eta, erantzunaren arabera, elkarrizketa hizkuntza batean edo bestean egitea agintzen diete. Bestetik, amaieran, errenta aitorpenaren ziurtagiria euskaraz gura duten galdetzen diete, baita aurrerantzean izan beharreko harremanak hizkuntza berean izan nahi dituzten ere.

## Iazko datuak, herriz herri

| HERRIA | EGINDAKO AITORPENAK | EUSKARAZ EGINDAKOAK |
|---|---|---|
| Arrasate | 12.652 | 412 |
| Bergara | 8.201 | 462 |
| Oñati | 6.381 | 199 |
| Aretxabaleta | 3.880 | 144 |
| Eskoriatza | 2.333 | 72 |
| Antzuola | 1.193 | 90 |
| Elgeta | 541 | 32 |
| Leintz Gatzaga | 126 | 3 |

ESPERIENTZIA PILOTUA

## 200 inkesta egingo dituzte Bergarako ogasun bulegoan

**Aurten, esperientzia pilotua jarri du martxan Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalizaziorako Zuzendaritzak. Hango kide Joxean Amondarainek azaldu duenez, Gipuzkoako ogasun bulego guztietatik lau aukeratu dituzte 800 inkesta egiteko. Horietatik bat Bergarakoa da.**

**Errenta aitorpen kanpainan, euskara bultzatzearren, Aldundiak aplikatzen duen protokoloari buruzkoak izango dira inkestak. Protokoloa zenbateraino betetzen den jakin ahal izango da. Egun eta ordu berean egingo dizkiete bezeroei inkestak, maiatzaren bigarren hamabostaldian.**

Aurten, hala ere, esperientzia pilotua jartzea erabaki du Aldundiak. Lau ogasun bulegotan 800 inkesta egingo ditu, elkarrizketei jarraipena eginez eta protokoloa zein puntutaraino betetzen den zehaztuz.

**KUTXA-N ERE PROTOKOLOA ABIAN**

Gipuzkoa eta Donostiako Kutxak ere konpromiso zehatzak hartu ditu gai horren harira. Esandako Aurrezki Kutxako Mikel Irizarrek azpimarratu duenez, aurten Foru Aldundiaren protokoloa aplikatzen hasi da bezeroen artean.

Horretaz gainera, errenta aitorpena egiten dituzten kudeatzaileen artean lagin bat aukeratu du Kutxak, protokolo horren jarraipen zehatza egiteko asmoz. Irizarrek gaineratu duenez, Arrasateko, Oñatiko eta Bergarako kudeatzaileak hautatuen artean daude.

**ARRASATEKO EUSKALGINTZA**

Euskara bultzatzeko ekimenak ez dira hor amaitzen. Aurten, hirugarren aldiz, errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abian jarri du Arrasateko Euskalgintzak. Deia bi modu ezberdinetan ari zaie bidaltzen 3.000 laguni, langile nahiz elkarteetako bazkideei, Arrasateko Euskalgintzako Karmele Zuazubiskarrek jakinarazi duenez.

Batetik, langileak triptikoa jasotzen ari dira aste honetan zehar, nominarekin batera. Eskutitz bat ere bidaltzen ari zaie guztiei, non errenta aitorpena euskaraz egitea oso erraza dela azaltzen den, besteak beste. Eskuz ere emango dira horiek, Emun-en bitartez.

Ekimen horiek guztiek helburu bera dute: euskarari bultzada ematea.

Lana Koop. Elk. LANA

**Ohiko Batzar Nagusirako deialdia**

Gure kooperatibaren estatutuetako 43. artikuluan agertzen den moduan, Artekaritza Kontseiluak Batzar Nagusi Arrunterako deialdia egiten du 2007ko maiatzaren 11rako, 16:00etan lehen deialdian eta 16:30ean bigarren deialdian, KULTURA ETXEko bilera aretoan: Santa Marina Plaza, z/g Oñati.

**GAI ZERRENDA**

1.- 2006ko Batzar Arruntaren agiria onartzea.

2.- 2006ko Memoria, Kontuak eta Balantzeen azterketa eta onartzea.

3.- Soberakin garbien banaketa.

4.- Lege eta Araudizko erabakiak.

5.- 2007ko Gestio Planaren azterketa eta onartzea.

6.- Estatutu eta Barne Araudiaren aldaketak.

7.- Artekaritza Kontseilua berritzea.

8.- Beste batzuk, erregu eta galderak.

*Oñati, 2007ko apirilaren 17a*

*Lehendakaria*

FAGOR EDERLAN KOOP E. FAGOR

**2007ko OHIKO BATZAR OROKORRA DEIA**

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Fagor Ederlan kooperatiba elkarteko Batzar Orokorra deitzen da. Batzarra Arrasateko Amaia antzokian egingo da 2007ko maiatzaren 12an, 09:30ean lehen deialdian eta, kasua balitz, bigarrenean 10:00etan, egun eta toki berean, ondorengo GAI ZERRENDA honekin:

**GAI - ZERRENDA**

1- Aktak onartzeari buruzko informea eta akordioa.
2- Memoria irakurtzea eta onartzea.
2.1- 2006ko gestioari buruzko akordioa.
2.2- 2007ko Gestio Plana onartzea.
3- Fagor Taldeari, Dibisioari eta MCCri buruzko txostenak.
4- 2006ko Kontuen eta Balantzeen azterketa.
5- 2006ko Emaitzen banaketa.
6- Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
7- Kooperatibaren Estatutu Sozialaren 24. artikulua aldatzea.
8- Kooperatibako Barne Araudiaren 26.1 a), 45.4, 50.4, 55.3 eta 89.2 l) artikuluak aldatzea.
9- Victorio Luzuriaga Tafallarentzat proiektu sozio-enpresariala onartzea.
10- AHKTko aurkeztutako araudia
11- Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak. Fagor Taldea berregokitu eta indartzeko proiektua
12- Kontseilu Errektorea berritzea.
13- Zaintza Batzordea berritzea
14- Kontseilu Soziala berritzea.
15- Eskariak eta erreguak.

Espresuki jakinarazten da bazkide guztiek dutela Estatutu Sozialei buruz proposatutako aldaketen testu osoa eta berorren txosten justifikatzailea egoitza sozialean aztertzeko eskubidea, eta dokumentu horiek berei dohainik eskuratu edo bidaltzekoa.

*Eskoriatza, 2007ko apirilak 26*
*KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA*

**ETXEBIZITZAK** > SURADESAREN 20. URTEURRENA

# Birgaitzeen elkarteen topaketak Arantzazun

Suradesaren 20. urteurreneko ekitaldien barruan, birgaitzeen elkarteen topaketak izan dituzte Arantzazun. Erronka berria energia aurrezpena dela azaldu zuten



TOPAKETAK Birgaitzeen elkarteak Arantzazun bildu ziren atzo. MIREN ARREGI

**AINTZANE IRIZAR** > OÑATI

Suradesa elkartea sortu zuten 1986an, Debagoieneko udalek bultzatuta, gune historikoak birgaitzea kudeatzeko. EAEko era horretako lehendabiziko elkartea izan zen. Iaz bete zuen 20 urte Suradesak, eta azkeneko urte honetan hainbat ekitaldi antolatu dituzte hori ospatzeko.

**TOPAKETAK ARANTZAZUN**

Atzo, eguena, Arantzazun, Birgaitzeen elkarteen topaketak egin zituzten. Goizeko hamarretan hasi zituzten ekitaldiak, Koldo Azkoitia Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako diputatuaren berbaldiarekin. Luis Laskurain Suradesako gerenteak hartu zuen hitza ondoren. Ulmako ordezkariek etxebizitzak isolatzeko tekniken inguruko konponbide berritzaileen gainean jardun zuten. Mahaiingurua ere egin zuten birgaitzeen elkarteetako arduradunek. Gasteiz, Bilbo, Tolosa, Bermeo, Barakaldo, Eibar eta Donostiako birgaitze elkarteek parte hartu zuten.

**ENERGIA AURREZPENA**

Elkartearen hasierako helburua etxebizitzak birgaitzea zen, beste barik. Pixkanaka, baina, erronka berriei helduz joan dira eta oraingo erronka da energia aurrezpena: isolamendua, birgaitze iraunkorra eta abar. Hori horrela, Suradesak ikerketa egiten dihardu jakiteko eraikinek dituzten tenperatura eta hezetasun mailak; horrela, energia aurrezteko eta hezetasunak kentzeko neurriak hartu eta hobekuntzak egin ahal izateko. Sei etxebizitza multzotan dihardute ikerketa hori egiten. Horietan lortutako datuekin eta eskarmentuarekin, teknika horiek hobetu eta beste eraikin batzuetara zabalduko dituzte.

**ENPRESAK** > JARDUNALDIAK

## Elkargiren eskutik, finantza jardunaldiak Bergaran

Maiatzaren 7an eta 14an izango dira jardunaldiak, ibarreko enpresei zuzenduta

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Elkargiren Bergarako bulegoak antolatuta, II. Finantza Jardunaldiak egingo dituzte maiatzaren 7an eta 14an, Bergaran, enpresei zuzenduta. Miguel Altuna institutuan izango dira, 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko aukera duzue telefonoz deituta (943 77 70 74 edo 943 30 91 80) edo posta elektronikoz (*ebergara@elkargi.es* edo *furbizu@elkargi.es*).

**EGITARAUA**

Astelehenean, hilak 7, Elkargiko Merkatuko zuzendari Miguel Angel Fernandezek *Merkatuko finantza-linea eta laguntza onenetara zela iritsi 2007an* izenburupean eskainiko du ikastaroa. Hilaren 14an *Familia protokoloa zela ezarri eta oinordetza prozesua zela planifikatu* azalduko du Esteban Heredia elkarteko Aholkularitza eta Finantza Zerbitzuen Saileko zuzendariak.

**ADINEKOAK** > 139 PLAZA ESKAINTZEN DITU ALDUNDIAK

## Oporretan egoitzetan egoteko epea zabalik dago

Zerbitzua urte osoan eskaintzen bada ere, uztail eta abuzturako dira eskaera gehienak

**M.B.** > BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 139 leku eskaintzen ditu, oporretan adinekoek egoitzetan egonaldiak egiteko. Zerbitzu hori uztailan erabili gura dutenek maiatzaren 15a baino lehen eman behar dute izena. Abuztuan interesa dutenek, berriz, maiatza amaitu aurretik. Izena emateko udaletxeetako gizarte zerbitzuetako bulegoetara jo behar da.

Erabiltzaileek euren egoera ekonomikoaren arabera ordainduko dute zerbitzua. Hilean 582 euro baino gutxiago irabazten dutenek egunero 14 euro jarriko dituzte. Gehiago jasotzen dutenek, berriz, 22 euro.

AFAGIk eta Foru Aldundiak, bestalde, Alzheimerdun gaixoekin oporraldiak antolatu dituzte Nojan. 943 29 71 18 zenbakian informazioa eskaintzen da.

ULMA
ULMA Forja, Koop. E. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

**Eguna:** 2007ko maiatzaren 11a
**Ordua:** 15:00etan lehen deialdia eta 15:30ean bigarrena
**Tokia:** ULMA Taldeko Auditorioa - Oñati

GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea
2. 2006ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2007ko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2006ko ekitaldiko kontuak eta balantzea aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
5. Auditore Izendatzea
6. Soberakin garbiak banatzea
7. Heziketako eta kooperatiba-sustapeneko fondoen (HKSF) erabilera
8. Egituraz gaindiko erakundeekin zerikusia duten gaiak
9. POGU IIIren, III. tituluaren 2.1.2 eta 2.2 atalak aldatzea, hala badagokio
10. Estatutu Sozialen 13 eta 28. artikuluak aldatzea, hala badagokio
11. Kooperatibaren Barne Araudiaren 6 eta 82. artikuluak aldatzea, hala badagokio
12. Ekonomia araubideko Estatutu-Xedapenak
13. Mendeko ekarpen finantzarioen jaulkipena
14. Zaintza Batzordeko kide bat berritzea
15. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
16. Galderak eta eskaerak

*Oñati, 2007ko maiatza*

OHARRA: Bazkide guztien jakinaren gainean zera jartzen da, kontabilitate liburuak eta deialdi honetan proposatutako estatutuzko, Barne Araudiaren eta POGU IIIren aldaketen testuak eta zergatien txostena egoitza sozialean aztertzeko eskubidea dutela. Hala eskatzekotan, dokumentuok eman egingo zaizkie, edo doan bidaliko.



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

*Erabaki al duzu non jarraitu zure ikasketak?*

Etorri eta ezagutu MONDRAGON UNIBERTSITATEA bertatik, ATE IREKIEN SAIOETAN

Goi Eskola Politeknikoa
Arrasate-Mondragón Areto Nagusia
(2.zikloa) maiatzak 24 17:30 osteguna
maiatzak 31 17:30 osteguna
(Biteri Ikastetxe Nagusia) ekainak 9 11:00 larunbata
izena emateko: 943 71 21 92 bmarkaide@eps.mondragon.edu

Enpresa Zientzien Fakultatea
Oñati Areto Nagusia
maiatzak 24 18:00 osteguna
izena emateko: 943 71 80 09 cgarate@eteo.mondragon.edu

Enpresa Zientzien Fakultatea
Bidasoa-Irun Areto Nagusia
(2.zikloa) maiatzak 10 18:00 osteguna
maiatzak 17 18:00 osteguna
izena emateko: 943 63 91 29 aallur@bidasoa.eteo.mondragon.edu

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Eskoriatza Areto Nagusia
maiatzak 31 18:00 osteguna
izena emateko: 943 71 41 57 sarrera@huhezi.mondragon.edu

www.mondragon.edu/etorkizuna

MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

# Oñatin, duela zenbait urte...

**Ismael Malbadi**
(Herriko futbol txapelketako batzordearen izenean)
Oñati

Gutxi geneukan. Nahikoa genuen hartxintxarrez eginiko zelai txiki bat, 2 ate, gutxienekoak betetzen zituen teilape bat eta tabernatxo bat, hau guztia denok erakusten genuen ilusio eta zaletasunarekin bat eginik.

Txapelketa polit bat jolasten genuen, giro ederrean betiere. Denborarekin hobekuntza etorri zen; Aloña Mendirekin batera partekatuko genuen eta eraiki berri zen zelai berri bat erabiltzeko aukera proposatu ziguten; Ibarra, hain zuzen. Ez geneukan ezezkoa emateko aukera gehiegi, San Lorentzokoa jabetza pribatuko lurra baitzen.

Bestalde, egia esan, irrikan geunden benetako futbol zelai batean jolasteko, non hamaika hamaikaren aurka jokatuko genuen eta ez bederatzi bederatziren aurka, momentura arte egiten genuen bezala. Hau poza! "Ziur denborarekin belarrezko edo, gutxienez, belar artifizialeko zelai bat emango digutela…". Hauxe pentsatzen genuen guk. Tentelak!

Konturatu gabe, 1992. urtera iritsi ginen. Gaur, 2007an, 15 urte beranduago, denak berdin jarraitzen du. Beno, egia esan, ez. Aparkaleku eta argi berriak ditugu. Bada zerbait! Gu ez gara inoiz egoera honetaz kexatu. Beti esker onez erantzun izan diogu eskaini izan zaigun guztiari. Onartua daukagu beti eman izan zaiola garrantzi gehiago Aloña Mendi eta eskola kirolari. Ez al dira konturatzen nagusien herriko futbol txapelketan, esaterako, 500 lagunetik gora garela parte hartzen dugunak? Hau ez da serioa!

Oñatin kirola egiten duen jende kopurua eta dituen lursailak kontuan hartzen baditugu ez da zilegi Ibarra bezalako leku batean denok bueltaka jardutea. Lurraren egoera ere benetan kezkagarria da. Nork ez ditu bertan dauden zuloak inoiz ikusi eta batez ere bere azalean sufritu? Eta inguruan ditugun arriskuak? Eta zer esanik ez atletismoko pistak. Horren zaila al da ikuslegoarentzako zerbait jartzea? Teilatua, harmailak, aulkiak…

Herri gutxik izango dute Oñatik kirol munduan duen boluntario kopurua eta are gutxiago berauek musu-truke egiten duten antolakuntza lan bikaina. Ez al dute hauek eta gainontzeko oñatiarrek baldintza egokiak betetzen dituen kirol konplexu bat merezi? Gure beharrak aseko lituzkeen konplexu bat eskatzea hainbeste eskatzea al da?

15 urte igaro dira eta egoera honekin aspertzen hasiak gara. Bada garaia norbaitek arazoa eskutan har dezan!

Guk ez dugu amore emango. Oñatiko kaleetan zehar antxintxika eta "zelaian" belaunak urratuz jarraituko dugu, zuok, honen ardura hartu eta erantzun bat ematen diguzuen bitartean.

# Legea, tranpak eta interesak

**Jon Gonzalez** > Arrasate

Egin zuten PSOEk eta PPk lege bodrio bat, Ezker Abertzalea legez kanporatzeko, eskubideak urratzen dituena: Alderdien Legea. Eta lege horri tranpa ere aurkitu zioten. Eta, hortxe gaude hauteskundeak hurbiltzen diren bakoitzean, kontu berari bueltaka hedabideetan: hau ez dela legezkoa, beste hau agian bai, zerrenda hau *kutsatuta* dagoela, ez dakit zer auzitegik ez dakit noiz emango duela epaia. Aspertu eta nazkatu egiten nau kontu honek. Eta ni bezala, herritar asko ere bai.

Orain dela 70 urtetik gora sortu eta bortxakeria baztertu eta errefusatzen duen alderdi bat laga behar dute legez kanpo, ez dakit nor dagoelako zerrendetan? Zer da hau, interes politiko jakin batzuen alde egitea ez bada? Portzierto, zerrendak gutxiago *kutsatzeak* ere lagunduko luke zerbait. Ez, ala?

# Liverpoolmania

**Andoni Arantzabal**
Bergara

Azkenaldian gipuzkoar piloa –Debagoienetik ere dezente– doa Liverpoolera asteburu pasa: hango futbol talde handiaren partiduren bat ikusi eta, bide batez, asteburua igarotzera, hiria-eta bisitatuz. Esan didate ez dela beste munduko ezer, baina hobetzeko lanetan dihardutela; datorren urtean Europako kultura hiria izango da.

Egia esan, ez da plan txarra, batez ere kontuan izanda hegazkin bidaiak asko merkatu direla azkenaldian. Gainera, joaten diren gehienak dira Realeko zaleak eta azkenaldian pozik egoteko motiborik ez dutenez, bada, penak ahaztu eta zerbaitekin gozatzeko egiten dute hara.

Izan ere, Liverpoolen Realeko jokaldi izandako bat da liderra: Xabi Alonso. Kontatu didatenez, oso estimatua dute hango zaleek eta bere izena abesten dute denek batera partidua hasi aurretik eta partiduan zehar; Gerrard eta Carragher dira zaleek oihukatzen dituzten beste jokalariak; hauek bertako harrobikoak dira eta, horregatik, oso estimatuak ere.

Liverpooleko zaleak, eta baita Realekoak ere, zergatik ez, pozik daude: Europako klub onenen txapelketako finala jokatuko dute gorriek Milanen aurka. Orain dela urte bi mitikoa izan zen haien garaipena aurkari berberaren aurrean. Oraingoan ere italiarrei irabazteko gauza izango dira Xabi Alonso eta konpainia? Ondo legoke.

Bukatzeko: 1. Xabi Alonsok final hori jokatzearren beste 250.000 euro jasoko ditu Realak. Ondo etorria! Diru asko jaso du Realak Alonso Liverpoolera joaten lagatzearren, baina nahiago nuke txuri-urdin jantzita. Horren moduko jokalariak behar ditu Gipuzkoako taldeak. 2. Realak hurrengo asteetan dauzka benetako finalak, lehenengoa oraingo zapatuan Anoetan Bartzelonaren aurka; txuri-urdinek baietz irabazi! 3. Ea Osasuna, beste gorritxoa, UEFAko finalean ikusten dugun eta, gero, Realari orain dela urte batzuk egindako faborea itzultzen dion Sadarren. Akordatuko dira Realari esker daudela orain lehenengo mailan eta Europako talde onen parean, ezta? Hala izatea espero dut.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 01

Faxa:
943 25 05 13

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Erantzun webgunean eta iPod bat eraman!



Zein heziketa-ziklo eskaintzen du
Arizmendi Ikastolako LANBIDE HEZIKETAk?
www.arizmendi.ikastola.net/lanbide
Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketa
Arizmendi ikastola

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten
www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn /aiastui /aretxargi /argi-plastik /arregi /atai /azkarate /bastida /briz-aseguruak
/BZ-sistemas /dragon-oriental /dukiena /ego /ekilore /ekin /elejalde /ezkutuorly /galgorri /gallastegi
/ganesha /garaia /gertu /gorkataxi /gurea /guztizeder /hamaika /itxaseder /irudisport /jracing
/joseba /korozabaleta /markiegi /maulanda /mayte /merkeopari /multiopticas /ohiak /ogizun /okipark
/otzeta /pando /richimaier /tabernaberri /udalaitz /urdeki /urbieta /vitoria /zainduz /ziripot

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.uxarte.net




Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

Atzerrian haur bat adoptatu nahi duten gipuzkoar gehienek Txinara zuzentzen dute eskaera. Hala, iaz, Aldundiak 115 eskaera jaso zituen Txinarako, eta 28 adingabe txinatar iritsi ziren Gipuzkoara. Orain, Txinak nazioarteko adopzioak tramitatzeko baldintzak aldatu dituenez, Anichi elkarteko Ana Gillegi elgetarrarekin izan gara egoera berria zein den azal diezagun.

**Ana Gillegi**> Anichi elkarteko kidea

# "Txinak baldintzak aldatu ditu, ume bakoitzeko hamar eskaera daudelako"

AMAIA ZALDUA> BERGARA

**Maiatzaren 1ean Txinak indarrean jarri zituen nazioarteko adopzioak tramitatzeko baldintza berriak, eta nazioarteko adopzioan, adingabeen jatorrizko herriak dira eskuduntza dutenak eskatzaileek zein baldintza bete behar dituzten erabakitzeko. Baldintza horien inguruan izan ginen berbetan Ana Gillegirekin, Anichi elkarteko kidearekin.**



Ana Gillegi, Anichi elkarteko kidea.

GOIENKARIA

**Haur txinatarren adopzioak bakarrik tramitatzen dituzue? Zergatik?**

Bai. Herrialde bakoitzak adopzioa legeztatzeko irizpide desberdinak jarraitzen ditu eta oso zaila da herrialde bateko adopzioaren inguruan informazio asko izatea. Beraz, Txinari buruzko ahalik eta informazio gehien lortzen saiatzen gara; pentsa beste herrialde batzuk gehitzen hasiz gero... Gainera, gu hasi ginenean, Gipuzkoako eskaera gehienak Txinara bideratzen ziren, eta orain ere, hala izaten jarraitzen du.

**Zenbat eskaera jaso zenituzten iaz?**

Guk ez ditugu eskaerak jasotzen, Foru Aldundia arduratzen da jendearen eskaerak jasotzeaz. Gure egitekoa adoptatu nahi duen jendeari laguntza eskaintzea da. Aurreadopzioan zein ondoren, formazioa eta informazioa eskaintzen diogu interesa duen jendeari; itxaroten dauden familiei lagundu egiten diegu eta kultura txinatarra gure umeen artean zabaltzen ahalegintzen gara: txinerako eskolak eta abar.

**Neska txinatarrak bakarrik etortzen dira?**

Ez, mutil txinatarrak ere etortzen dira.

Txinako egoera aldatu egin da. Esaterako, barne adopzioa bultzatzen hasi dira. Baliteke ondorio txarrak izatea; izan ere, denboran sostengatuta egongo den prozesu luzea izango da, eta prozesu horietan guztietan informazioa ez da behar bezala iristen. Gizarteak aurrera doan prozesu horrekiko duen hautematea ezkorra izateko arriskua sortzen da...

**Baldintza berriek zer aldaketa ekarri dituzte? Zaharrak baino hobeak dira?**

Ez dira ez hobeak, ezta okerragoak ere; beste egoera bat da, baina kasu honetan Txinak berak jartzen ditu baldintzak eta guk ezin dugu ezer egin horren aurrean.

Arauen arabera, banakakoek, bikote homosexualek eta bi aldiz baino gehiagotan ezkondutakoek ezin dute adopziorik egin. Nik argi dut, esaterako, bikote itsu batek umeak zain ditzakeela; eta ezkongabe batek ere berdin. Gure gizartean hala pentsatzen dugun arren, euren ustez haurrak zaintzeko hobe da bikote bat banakako bat baino.

Txinaren kasuan kontuan izan behar da ume bakoitzeko hamar eskaera dituztela, eta kopuru hori murrizteko modu bakarra arauak aldatzea izan da. Hau da, baldintzak zehaztu dituzte eskariak jaits daitezen.

**Adopzioaren prozedura zein da?**

Lehenik eta behin, Foru Aldundiari eskaera egiten zaio. Ondoren, adopzio-hartzailearen egokitasun-ziurtagiria atera behar da, eta, azkenik, herrialdeari –gure kasuan, Txinari– familiaren gaineko dokumentazio guztia aurkezten zaio. Txanda heltzen denean, Foru Aldundiak familiara etorriko den seme edo alabaren datuak eskaintzen dizkie adopzio-hartzaileei, eta une horretan, seme edo alabaren bila joateko ordua da.

BALDINTZA BERRIAK

**"Txinak jartzen ditu baldintzak, eta horren aurrean guk ezin dugu ezer egin"**

POST-ADOPZIOA

**"Post-adopzioan lan handia dugu; izan ere, familiek gorabeherak izaten dituzte"**

ELKARTEEN BEHARRA

**"Konturatu gara gure lana beharrezkoa dela gurasoei zein Txinako umezurtz-etxeetan gelditzen diren umeei laguntza lortzeko"**

**Adoptatzen duten bikoteei egiten zaien jarraipena nolakoa da?**

Jarraipena ez zaie bikoteei egiten, etorri diren haurrei baizik. Seme edo alaba hori behin hona etortzen denean, iritsi eta sei hilabetera egiten zaio lehenengo jarraipena. Bigarrengoa, aldiz, geroago egiten da: urtebetera-edo.

**Bikoteei eskatutako baldintzak gerora aldatzen badira, zer gertatzen da?**

Ezer ere ez. Bikoteen espedientea Txinan badago, lasai egon daitezke, ez zaie ezer gehiago eskatzen.

**Etorkizunari begira zer asmo dituzue?**

Post-adopzioan lan handia dugu; izan ere, familiek hainbat gorabehera izaten dituzte egoera berrira egokitzeko. Zerbitzu hori Foru Aldundiak ez duenez betetzen, elkarteak ari gara horretan. Gainera, elkarte batzuk nazio mailako adopziorako lege bat atera nahian gabiltza.

**Lau urte daramatzazue Txinari begira. Horrelako erakunde bat behar zen?**

Bai, beharrizana ikusi genuen gurasoen artean. Batetik, lehen aldiz adoptatzera zihoazenek informaziorik apenas zutelako; bestetik, umeak behin hona ekarrita ez baita bidaia amaitzen, hasi baizik; txinatar kultura gustuko dugunak hor txoko bat aurkitzen dugulako; eta azkenik, Txinako umezurtz-etxeetan gelditzen diren umeei laguntza lortzeko. Gero konturatu gara gure lana beharrezkoa zela gure eskubideak bermatzen laguntzeko.


KUTXA AURREIKUSPEN-PLANAK
Adituak planik-plan
Aurreikuspen-Plan berriekin etorkizun segurua izango duzu.
Oraintxe bertan lor dezakezu zeure etorkizuna ziurtatzea. Erakunde aditu batek bakarrik eman diezazuke, benetan, Aurreikuspen-Plan berriak zure esku jarriz, zeure aurrezkien errentagarritasuna bermatzeko aukera.
Kontrata itzazu ekainaren 29a baino lehen. Kopuru mugatua.
Kutxa Aurreikuspen-Planak Kutxa eta Kutxa Bi BGAEtara atxikita daude.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

# Herriak

**Arrasate** > 12-13 **Bergara** > 14-16 **Aretxabaleta** > 17-19 **Eskoriatza** > 20
**Antzuola** > 21 **Elgeta** > 22 **Aramaio** > 23



**> ARRASATE**
Corazon de Encinak hainbat ekitaldi iragarri ditu aste bukaerarako **> 13**



**> BERGARA**
Gabiria dorreko berriztatze lanak abuzturako bukatuta **> 14**



**> OÑATI**
San Lorentzo auzoko urbanizazioa berrituko dute **> 16**



**> ESKORIATZA**
Loreak eskuratzeko kanpaina hasi dute herriko merkatariek **> 20**

**ARRASATE** > DANTZARI EGUNA 07

# Ibarreko dantzarien biltzarra egingo dute bihar Arrasaten 160 lagunek

**BOST DANTZA TALDE**
Antzuolako, Oñatiko, Soraluzeko eta Arrasateko (bi) dantza taldeak izango dira

**MUSIKARIAK**
Haiei laguntzen izango dira herri guztietako txistulariak eta Arrasateko gaitariak



OÑATIN Ibarreko bost dantza talde elkartuko dira biharko saioan; argazkiak erakusten du iaz Oñatin egin zen dantza saioetako bat. GOIENKARIA

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Bihar, zapatua, 160 bat lagunek hitzordua dute Arrasateko kaleetan, euskal dantzen erakustaldia egiteko. Dantzariek, gaitariek eta txistulariek goizean Arrasaten bat egin, eta, egunean zehar, ibarreko bost dantza taldek azken hilabeteotan prestatzen ibili diren dantza saio bereziak egingo dituzte. Hain justu ere, goizez saio bat egingo dute, eta arratsaldez beste bat. Hala ospatuko dute aurtengo Dantzari Eguna.

**DANTZA SAIO BEREZIAK**
Bereziak edo ezohikoak izango dira dantza saio horiek; izan ere, halako biltzarrei begira dantza talde bakoitzak dantza berezia prestatzen du. Eta Arrasatera denetarik ekarriko dute: nesken dantzak, mutilenak eta mistoak; guztiak ere dantzari nagusiek egingo dituztenak.

**NAGUSIENDAKO SAIOA**
Azken batean, dantzari nagusien biltzarraren helburuak bi dira: batetik, umeek ez bezala, dantzari nagusiek ez dituztela saioak egiteko hitzordurik izaten: "Modu horretan, gutxienez, urtean saio bat egiten dugu", azaldu du Amalur Lopezek, Arrasateko ekitaldiko antolatzaileetako batek.

Eta bigarren helburua da euskal dantzak eta, oro har, euskal kultura erakutsi eta bultzatzea: "Halako ekitaldietan ez ditugu ohiko dantzak egiten, aldatzen ahalegintzen gara, berriak ikasten, euskal kultura erakusteko", jakinarazi du Amalur Lopezek.

**IRAILETIK LANEAN**
Lopezek kontatu du zelan joan den irailean hasi ziren gainerako dantza taldeekin biharko eguna prestatzeko batzarrak egiten.

Horrez gainera, dantzen entseguak egiten ere lan handia izan dutela gaineratu du: "Dantza talde guztiek dantza berri ugari egin behar ditugu biharko saioetan, eta, horren ondorioz, joan den azaroa ezkero gabiltza entseguak egiten. Aurten, bereziki, neskek izan dugu lan handia, esaterako, Soraluzeko dantza taldearen eskutik Batelerak dantza ikasten".

**HURRENGOAN, ANTZUOLAN**
Dantzarien biltzarra ibarreko herrietan txandaka egiten dute. Iaz Oñatin egin zuten. Aurten Arrasaten egokitzen da eta hurrengo urtean, berriz, Antzuolan. Aurtengoa 15. aldia da.

Antolaketari dagokionez, berriz, egokitzen den herria arduratzen da lan horrekin. Hala, aurten, Arrasateko Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeek antolatu dute, Arrasateko gaitarien eta txistularien kolaborazioarekin eta Udalaren laguntzarekin.

DATUA

**14**

DANTZA

Bi dantza saio egingo dituzte: bata goizean, eta bestea arratsaldean. Goizeko saioan zortzi dantza egingo dituzte; arratsaldean, berriz, sei. Dantza gehienak dira biharko saioari begira bereziki prestatutakoak.

## Eguneko egitaraua

**Goizez**
10:30 Bailarako dantza taldeei harrera.
11:30 Dantza taldeen kalejira herriko kaleetan zehar.
12: 30 Alardea, Herriko Plazan. Dantzak: Agurra; Itai dantza; Gipuzkoako ezpata dantza; Esku dantza mistoa. Urrats (Soraluze); Jorrai dantza; Arizkungo gaita. Arrostaitz (Arrasate); Luzaideko Makil dantza eta Jota fandangoa.

**Arratsaldez**
14:30 Dantzarien bazkaria, Sara Merenderuen.
18:00 Atzera ere elkartuko dira Herriko Plazan, alardea egiteko. Dantzak: Batelerak, Zuletinoak. Oñatz (Oñati), Cortes. Lore Gazteak (Arrasate); Bizkaiko dantzari dantza (Agintariarena, banakoa, ezpata joko handia eta makil dantza); Calles eta Jota eta Trokeo dantza. Oinarin (Antzuola).

# zerbitzuak

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ARRASATE

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 5 | Ruiz Perez | Nafarroa etorbidea 1 | 943 79 14 09 |
| Domeka, 6 | Ruiz Perez | Nafarroa etorbidea 1 | 943 79 14 09 |
| Astelehena, 7 | Etxeberria | Zarugalde 42 | 943 77 16 30 |
| Martitzena, 8 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Eguaztena, 9 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Eguena, 10 | Corcuera | Maisu Aranbarri 1 | 943 79 22 26 |
| Egubakoitza, 11 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |

### BERGARA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 5 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Domeka, 6 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Astelehena, 7 | Urrutikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 8 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 9 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Eguena, 10 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Egubakoitza, 11 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |

### OÑATI

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 5 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Domeka, 6 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 7 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Martitzena, 8 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguaztena, 9 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Eguena, 10 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Egubakoitza, 11 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |

### ARETXABALETA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 5 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 6 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 7 | Iturralde | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 8 | Iturralde | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 9 | Iturralde | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 10 | Iturralde | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 11 | Iturralde | Belorrieta 1 | 943 08 11 43 |

## TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

### OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### GARRAIOAK

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

### DEBAGOIENA

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

## URBANOAK

### ARRASATE

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

### BERGARA

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

### ARAMAIOKO AUTOBUSA

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |

| Gasteiz | Aramaio | Arrasate |
|---|---|---|
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

# eguraldia

## DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 5**

Eguraldi goibela, pattala, egingo du. Euria izango da eguneko protagonista, haizeak itsaso aldetik, ipar-mendebaldetik joko du-eta.



**Domeka, 6**

Hoberantz egingo du. Goizean euria egingo du, baina eguerditik aurrera atertu eta eguzkia ikusiko dugu.

## EUSKAL HERRIAN

Eguraldi txepela izango dugu. Hodeitsu egongo da eta euria egingo du, Kantauri isurialdean, batik bat. Zenbat eta hegoalderago joan eguraldia hobea izango da. Tenperaturak ez du aldaketa nabarmenik izango; domekan, hala ere, hoberantz egingo du.



## TENPERATURAK

**MINIMOA** Martitzena, 1 — **8 ºC**

**MAXIMOA** Domeka, 29 — **20 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **57,2 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 25 | 16 ºC | 125 ºC | 11,2 l/m² |
| Eguena, 26 | 17 ºC | 13 ºC | 11,1 l/m² |
| Egubakoitza, 27 | 14 ºC | 12 ºC | 9,2 l/m² |
| Zapatua, 28 | 19 ºC | 10 ºC | 2 l/m² |
| Domeka, 29 | 20 ºC | 13 ºC | 0,4 l/m² |
| Astelehena, 30 | 19 ºC | 11 ºC | 14,1 l/m² |
| Martitzena, 1 | 12 ºC | 8 ºC | 11,2 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

## ILARGIA MAIATZEAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 10 | 16 | 23 | 2 |

# oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> 1965ean jaiotakoen kinto afaria**
Maiatzaren 19an izango da, 22:00etan, Txarrantxa jatetxean. Aurretik Pol-Polen batuko dira, 19:00etan. Izenematea Ariznoa eta Pol-Pol tabernetan. Argibideak: 629 56 29 25 (Karlos) edo *ketxaniz@euskalnet.net*.

BERGARA
**> Udalekuetan izena emateko epea zabalik dago**
Maiatzaren 11ra arte egongo da zabalik. Izena emateko jo Xipizarok Agorrosinen duen bulegora 17:00etatik 19:00etara. Plaza mugatuak dira eta 1993-2004 urte bitartekoei zuzenduta daude.

DEBAGOIENA
**> Degabelek ohiko batzarra deitu du**
Debagoieneko abeltzainen elkarteak Arrasaten egingo du aurten urteko batzarra, hilaren 13an. Lehen deialdia 11:30ean da; bigarrena, 12:00etan.

BERGARA
**> Zabalotegiko auzotarrek manifestazioa egingo dute bihar**
Euren auzoa gurutzatuko duen errepidearen kontra egingo dute manifestazioa. 12:00etan abiatuko da Zabalotegitik.

DEBAGOIENA
**> Korrika 15eko zozketako zenbaki saritua**
Korrikako arropa erostearekin batera, kolore moreko zozketa txartelak banatu zituzten. Bada, eman dituzte aditzera zenbaki sarituak: 7136 eta 8589 dira, hain justu. Saria jasotzeko deitu 944 21 23 29 edo 639 44 06 15 zenbakietara edo idatzi *biltegia@aeknet.net* helbidera maiatzaren 25a baino lehen.

ARETXABALETA
**> Udalekuetan begirale jarduteko izenematea**
Maiatzaren 2tik 17ra bitartean egongo da zabalik izenematea. Horretarako, bidali curriculumak *kultura@aretxabaleta.net* helbidera edo kultura etxera (Iralabarri plaza 13).

DEBAGOIENA
**> Herri Urratsera joateko autobusak antolatu ditu Debagunek**
Debagoieneko euskara elkarteen elkargoak autobusak antolatu ditu maiatzaren 13an ospatuko den Herri Urratserako. Txartelak eskura daitezke euskara elkarteetan maiatzaren 10a baino lehen.

ARETXABALETA
**> Posta bidez bozkatu nahi dutenendako zerbitzua jarri du EAJk**
Posta bidez bozkatzeko orduan zalantzaren bat izan edo laguntza behar dutenendako zerbitzua jarri du EAJk batzokian. Interesa duten guztiak astelehen eta eguaztenetan 18:00etatik 19:30era hurrera daitezke batzokira.

BERGARA
**> Ezker abertzaleak bulegoa jarri du posta bidez bozkatzeko**
Posta bidez bozkatu nahi duten guztiendako jarri dute bulegoa. Artatse elkartean dago, 11:00-14:00 eta 18:00-20:00 –zapatuetan goizez bakarrik–. Maiatzaren 17a da posta bidez bozkatzeko azken eguna.

BERGARA
**> 1963an jaiotakoen kinto bazkaria**
Maiatzaren 12an egingo dute, Torrekua erretegian, 15:00etan. Aurretik plazan elkartuko dira, 13:00etan. Izena emateko azken eguna da maiatzaren 10a. Horretarako jo Ariznoa tabernara edo Torrekua erretegira (10 euro aurreratu behar dira).

ARRASATE
**> Arizmendiko ikasleen moda desfilea**
Batxilergoko lehen mailako ikasleek egingo dute eta helburua da ikas bidaiarako dirua lortzea. Gaur, egubakoitza, da desfilea, 18:30ean, Amaia antzokian. Sarrerak 4 euro balio du.

OÑATI
**> UEUra joateko beka eska daiteke Udalean**
Baldintzak dira Oñatin erroldatua egotea eta ikasle edo langabea izatea. Ikasleen kasuan, unibertsitateko matrikularen bidez egiaztatu beharko dute baldintza hori, eta langabeen kasuan, langabe txartelarekin. Horrekin batera, ikastaroaren matrikula egina behar du eskatzaileak eta egiaztagiria erantsi behar dio Udalean egiten duen eskariari.

BERGARA
**> Mendekoste jaietan txosna jartzeko eskariak egiteko epea zabalik dago**
Mendekoste jaiak geroago eta gertuago daude, eta, horren harira, txosna jarri nahi dutenendako oharra kaleratu du Udalak. Hain justu ere, Bergarako irabazi asmorik gabeko talde edo elkarteek egin dezakete eskaria. Eskaerok aurkezteko mugaeguna maiatzaren 10a da, 12:00etan.

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

**kale inkesta**

# Gas instalazioak fidagarriak direla iruditzen al zaizu?



**Leire Zubikarai**
Langilea
Arrasate

Denetarik dagoela uste dut. Kontrolak agian ez dira sarritan egiten eta etxe batzuetan instalazioak zaharkituta daude eta jabeak ez dira horietaz arduratzen. Enpresak ere gutxi arduratzen dira.



**Paula Pacheco**
Erretiratua
Arrasate

Horrelako gauzekin ezin da inoiz jakin. Nik, badaezpada, kontrol guztiak egiten ditut. Enpresa arduratzen da horretaz. Zerbait arraroa sumatzen dudanean, hala ere, deitu egiten dut.



**Eduardo Okina**
Erretiratua
Arrasate

Instalazioen egoeraren arabera. Zaharrak badira eta errebisiorik ez bada egiten, zerbait gerta daiteke. Bakoitzaren jokaera ere hor dago. Nik lau urtean behin egiten dut errebisioa.



**Josu Belartz**
Langilea
Arrasate

Nahiko fidagarriak dira. Errebisioak egiten dira. Horiek eskatzea norberaren erantzukizuna da. Enpresak abisua emango balu, eraginkorragoa izango litzateke, batzuetan ahaztu egiten zaigu-eta.



**Pilar Erdozia**
Langilea
Arrasate

Instalazioak kontrolatzen dira. Noizean behin errebisioak egiten badira, ez dut uste arazorik egon behar duenik. Instalazioak kanpoan izatea seguruagoa izan daitekeela iruditzen zait, etxean baino.

**txaloak eta txistuak**



M.B.

# Santa Barbaran paperontzi gutxi dago

Arrasateko Santa Barbara parkean ziburu berriak jarri dituzte orain dela gutxi. Bada, erabiltzaile bat kexu etorri da gurera, paperontzi gutxi daudela esanez. Ahalik eta bizkorren jar ditzatela eskatu du, zaborrak lurrean amai ez dadin.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

**asteko datua**

# 473.853

Arrasateko Zerrajeraren lurretan behin-behineko aparkalekua eraikiko dute. Egitasmo horrek 473.853,10 euro balioko du. Debagoieneko ospitale berria egiteko lanak hasiko dira. Horiek eragin dezaketen aparkaleku falta ekidin gura dute horren bitartez.

**usteak uste**

Ubane Madera

# Aberatsak aberatsago... eta pobreak?

Haziendarekin ureroko hitzorduari aurre egin behar diogu datozen hilabeteotan. Gai delikatua, gure poltsikoak ikutzen dituzten guztiak moduan. Eta are delikatuagoa da gaia poltsikotik zerbait atera behar izaten dugunean Haziendarekin bakeak egiteko. Hori, beti ere, Haziendak eskatzen duena "bidezkoa" denean.

Baina zer gertatzen da zalantzazko bidezkotasun hori ere galdu egiten denean?

Joan den astean ezagutu nuen kasu batekin ilustratuko dut hobeto galdera.

Mutil gaztea (28 bat urte), arrasatearra, etxe propio bakoa eta seguru aski (asko eta asko moduan) bestelako jabetza edo aberastasun material larregi bakoa.

Bada, orain gutxi kontatu zuen Etxebideren zerrendetatik kanpo utzi zutela, ez zelako iristen Etxebidek exijitzen duen gutxienekora. Gutxienekora... Eta hori nik beti ikusi dudala lanean.

Joan den astean, berriz, kontatu zuen Haziendak 500 euro ordaintzea eskatu diola orain. Zela da hori posible?

Ni ez naiz sekula izan ona matematiketan. Hala ere, logikak esaten du babes ofizialeko etxebizitzetako zerrendatik kanpo uzten badute, Haziendari eman baino, berak kobratu egin beharko lukeela Haziendatik zerbait.

Edo, betiko moduan, logika hori, *inozoen* logika al da?

**5 galdera...**

# Jesus Calvo Peñalba

Ferietako saleroslea
Durango

**1. Arrasateko San Andres auzoko jaietan izan zara barrakekin. Gurasoek diote horien prezioa garestiegia dela. Zenbat balio du zureak?**
Bi euro eta erdi balio du. Arrazoi dute gurasoek diru larregi dela esatean. Baina gastu asko ditugu. 2.540 euro ordaindu behar dizkiot Udalari, San Andres eta Musakolako jaietan izateagatik. Horretaz gain, bestelako gastu batzuk ere baditugu, hala nola argia eta langileak. Hori guztiori, azkenean, herriak ordaintzen du.

**2. Barrakek gutxi irauten dutela ere esaten dute gurasoek?**
Lau minutu inguru irauten du nireak. Besteak baino gehiago irauten du, prezioa ere handiagoa delako. Gainera, atzera eta aurrera egiten du, eta mugimendu horiek denbora eskatzen dute.

**3. Horrek guztiorrek nolabaiteko eragina izan du salmentetan...**
Bai, jaitsi izan dira. Lehiakortasuna itzela da, aisialdirako gero eta aukera gehiago dago-eta. Denetarik dago, eta horrek eragina izan du barraketan. Jaitsiera toki guztietan igarri da, eta herri batzuetan neurriak hartzen dira; adibidez, buelta batek 1,5 euro balio izatea. Hori kontuan izan beharko lukete udalek; horren zergak nabarmen igotzen du prezioa.

**4. Euskara askotan entzuten da. Zeinek aukeratzen du musika?**
Gazteen barraketan euskaraz eta gazteleraz erdi bana jarri behar dugu, Udalak aginduta. Umeen barraketan, berriz, musika guztiak euskaraz izan behar du. Udal gehienek eskatzen dute hori. Urteko musika jartzen dugu, bestalde.

**5. Amaitzeko, ibarreko beste herriren baten ere ikusiko zaitugu datozen hilabeteotan?**
Bai. Gipuzkoan eta Bizkaian bakarrik ibiltzen naiz. Arrasateko jaiez gain, Oñatikoetan ere izaten naiz. Ibarreko bi herri horietara baino ez naiz hurbiltzen. Orain, San Andres auzotik Urduñara joango naiz.



**AUZOAK** > GESALIBARREN GAINEKO AZTERKETA

# Gesalibar auzoaren beharren gaineko azterketa egingo dute

## Auzotarrekin batzarra egingo dute datorren eguaztenean, hilaren 9an, 20:00etan, Gentil Ola elkartean asmoen berri emateko

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Gesalibar auzoko batzordearen ekimenez, ikerketa bat egingo dute Gesalibarren auzo hartan dauden gabeziak eta beharrak zehazteko. Joserra Askasibar auzo alkateak eman ditu adibide batzuk: "Aparkaleku aldetik oso gaizki dago; ez dugu zuntz optikorik, ezta gasik ere; argindarraren hariak airetik doaz eta horiek lurperatu egin beharko lirateke eta umeendako jolasleku aproposik ez dago, adibidez".

**AUZOTAR GUZTIEI GALDETU**

Egingo dutena da auzotar guztiei galdetu zein den euren iritzia; Agurne Juldain arrasatearrak telefonoz lehenengo, eta aurrerago etxez etxe egingo ditu galderak. 150 bizilagun inguru ditu Gesalibarrek, eta ahalik eta partaidetzarik handiena eskatu die alkateak, "oso inportantea da, bereziki, Udalera begira". Izan ere, "Udalera eramango ditugu emaitzak, Hirigintza eta Zerbitzu Sailetara haiek gure egoeraren jakinaren gainean ipintzeko. Eta asmoa da jarraipena egitea gero". Hain justu ere, auzoko beharrak asetzeko eskaerak egingo dituzte udaletxean.

**OINARRIZKO ZERBITZUAK FALTAN**

Oro har, auzoko alkatearen iritzia da Gesalibar apurtxo bat utzita dagoela, "oinarrizko zerbitzu batzuk falta zaizkigu". Halaber, uste du bestelako auzoekin konparatuta, Gesalibarren egoera okerragoa dela: "Adibidez, orain dela lau urte eskatu nuen autobus geltokian markesina bat ipintzea. Bada lau urteren ostean, hemen ez dute ipini eta bai Garagartzan. Eta taxi busaren lau erabiltzailetik hiru Gesalibarrera datoz".




**KOALIZIOA** Julia Monge eta Ander Rodriguez, prentsaurrekoan. U.M.

**HAUTESKUNDEAK 07** > EB-BERDEAK-ZUTIK

# Udaleko politika salatzeko elkarretaratzea eguaztenean

## Udal hirigintza eta etxebizitza politika salatzeko kanpaina hasi du EB-Berdeak-Zutik koalizioak

**U.M.** > ARRASATE

EB-Berdak-Zutik koalizioak diptikoa bidali du etxez etxe hirigintza eta etxebizitza politikarekin lotutako udal jarduna salatzeko. Horrez gain, kale bilkura deitu du hilaren 9rako, 19:00etan, Herriko Plazan. Besteak beste, salatu du udal gobernuak, "alkatea aurrean eta EAJ, EA eta PSE alboan dituela, sustatzaileei eta eraikitzaileei mesede egiten dien hirigintza praktikatzen" duela. Eta Egitamu Orokorra herritarren partehartzearekin berraztertu egin behar dela uste du.

**OBRAK** > ABAROA BERRIA

# Zenbait proposamen berri egin behar dituzten arren, Abaroaren proiektua aurrera doa

## Kanpoko irekidurak eta material desberdinak proposatzeko eskatu dute Udaletik; dena den, oraingo proiektua ez dute atzera bota

**U.M.** >ARRASATE

Joan den asteko artikuluaren harira, zenbait gaizki ulertze medio, Abaroaren proiektua dela-eta, zehaztapen batzuk egin behar ditugu. Biark Studio-ko arkitektoek zera zehaztu dute: "Fatxadetan beste aukera batzuk aurkezteko eskatu digute; proiektua aztertu zuen batzordeak aukera gehiago ikusi nahi zituen. Dena den, ez dute esan proiektua ez dutela gogoko eta ez dutela dagoenetan egingo, baizik eta aukera gehiago proposatzeko eskatu digute".

Leihoen konfigurazioaren harira, berriz, horiendako bestelako antolaketa bat ere eskatu dute Udaletik. "Gainerako guztia onartu egin dute, hau da, eraikinaren itxura orokorra, bolumena eta barruko banaketa".

> UDALA

### Asteleheneko osoko bilkuran onartu zituzten 320.000 euro Garagartzan ortuak egiteko

Atzerapen dezentearekin bada ere, badirudi Garagartzan ortuak egitearen proiektua badoala aurrera. Asteleheneko osokoak onartu egin zuen kreditu aldaketa bat 320.000 eurokoa proiektu hori lantzeko. Are gehiago, jakinarazi zuten lehenago jasotako dirulaguntza baten eraginez, urriaren 31 baino lehen ortu horiek exekuzio fasean egon behar dutela derrigorrez.




ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



**OSPAKIZUNAK** > CORAZON DE ENCINAREN JAIA

# Corazon de Encina aste kulturala ospatzen dabil

## Arrasaten bizi diren extremadurarren elkarteak kultura astea antolatu du

**I.B.**> ARRASATE

Arrasaten bizi diren extremadurarrek, Corazon de Encina elkartekoek, XVII. kultura astea antolatu dute. Joan den zapatuan hasi zituzten ekitaldiak.

Hala ere, oraindik ekitaldi ugari egingo dituzte. Hain zuzen ere, bihartik, zapatua, hilaren 13ra arte egunero izango dira ekitaldiak San Andresen duten egoitzan.

**HELDU ETA GAZTEEN JOKOAK**

Bihar, zapatua, tute eta kuatrola jokoen finalak jokatuko dituzte. Etzi, berriz, txintxon jokoaren finala egingo dute. Egun berean, elkarteko ohorezko damak aukeratuko dituzte.

Astelehenari dagokionez, berriz, Montserrat Puerto margolariaren erakusketa inauguratuko dute.

Martitzenean ume eta gazteen marrazki, margo, idazketa eta poesia lehiaketak egingo dituzte. Eguaztenean, berriz, Extremaduraren eta Corazon de Encina elkartearen gaineko bideoak emango dituzte.

Horrez gain, hilaren 11n, barikua, saiheski jana, antzezlana eta dantzaldia izango dituzte.



**JOKOAK** Lehiaketa eta joko ugari egingo dituzte egunotan. GOIENKARIA

> MUSIKA

### Gaur, egubakoitza, herriko musikari ugarik ezohiko emanaldia egingo dute gaztetxean

Gaur, egubakoitza, kontzertu berezia egingo dute gaztetxean, 22:00etan. *Burua astinduz, badator euskal herri berria* izenpean jaia antolatu dute. Never Surrender talde arrasatearrak hainbat talderen kantuak eskainiko ditu, herriko talde askotako musikarien laguntzarekin: Puñetazo, Ardi Galduak, Des-Kontrol, Aggressive Combat, Anger, Gose, Lost Girls, Enboskada, The 5 Twisters eta beste. Horren ostean, MC6 bertsio taldea, Los Deaz eskoriatzarrak eta JFK musika talde arrasatearrak, bertsolariek eta M&M disko jartzaileek esku hartuko dute; eta bestelako emanaldi akustikoak ere egongo dira.



**LORE GAZTEAK** Euskal dantza tradizionalen gaineko ikastaroa egingo dute taldeko arduradunek. GOIENKARIA

**DANTZA** > DANTZA IKASTAROAK GAZTE BULEGOAREN ESKUTIK

# Gaur egungo eta euskal dantzak ikasteko aukera

## Gaur egungo dantzak Maite Albesek irakatsiko ditu; eta euskal dantzak Lore Gazteak taldeak

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Udaleko Gazte Bulegoak dantzarekin lotutako bi ikastaro antolatu ditu maiatzetik ekainera bitarterako.

Astelehenean, hilaren 7an, hasiera emango diote gaur egungo dantzen gaineko ikastaroari. Astelehenetan eta eguaztenetan egingo dute, 18:00etatik 19:00etara bitartean. Maite Albes izango da irakaslea, eta Kulturaten egingo dute.

**EUSKAL DANTZAK ERE BAI**

Bestalde, hilaren 17tik ekainaren 16ra bitartean euskal dantzen gaineko ikastaroa egingo dute. Lore Gazteak taldeko arduradunek emango dute ikastaroa, elkarteak berak Otalora kaleko eraikinean daukan egoitzan. Eskola horiek egubakoitzetan egingo dituzte, 19:00etatik 20:30era.

Gaur egungo dantzen ikastarorako matrikula 20 euro da (12, ikasle eta langabeendako); eta euskal dantzen ikastarorako 10 euro (6, ikasle eta langabeendako). Interesatuek Gazte Bulegora jo beharko dute.




S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82






**ONDAREA BERRESKURATZEN** > 2006KO UZTAILEAN HASI ZITUZTEN LANAK

# Abuzturako bukatuko dituzte Gabiria dorreko berriztatze lanak

Obrak bukatu ostean, 40 bat langilek lan egiteko beste bulego egongo dira eraikinean

Asmoa da langileek irailean egitea aldaketa eta urrian, eraikin berrituaren inaugurazioa

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Datorren abuzturako bukatuko dituzte Gabiria dorrea berriztatzeko lanak. Eraikinaren kanpoko aldea, fatxada, konpondu dute dagoeneko. Orain barruko lanak egiten ari dira, eta ingurua txukuntzea izango da azken pausoa, ondoko etxebizitza berrien urbanizazioarekin batera.

**HIRU SOLAIRU BARRUAN**

Tavex Algodonera lantegiko idazkari orokor Manu Diezek baieztatu duen moduan, kanpoko lanak bukatuta daude: "Harria garbitu dute eta leihoak konpondu egin dituzte. Apirilean kendu zituzten aldamioak eta sarea". Orain barrua antolatzen ari dira. "Hiru solairu izango ditu eraikinak: behe solairuan harrera, bilera gela batzuk eta bulego batzuk egongo dira; lehen solairua bitan banatuta egongo da: erdian Bergarako ehungintzari buruzko erakusketa bat egongo da eta beste erdian, bulegoak; bigarren solairuan bulego gehiago egongo dira", jarraitu du Diezek. "Horrez gain, lur azpian ere beste solairu bat egongo da: artxiboa egongo da hor", bukatu du.

Guztira 900 metro koadro inguru izango ditu eraikinak eta horiek nola banatu ari dira pentsatzen orain: "Oso banaketa funtzionala izango da, eta hori azkar egingo dugula pentsatzen dut", argitu du lantegiko idazkari orokorrak.

**IRAILEAN LEKUALDAKETA**

Lanak martxa onean doaz, eta kalkulu guztien arabera abuzturako bukatuko dituzte: "Orain arteko zatian ez da atzerapenik egon. Eraikinaren barruan agertu dira zaindu beharreko elementu batzuk, arku bat eta armarri bat, adibidez, eta gune horietan moteldu egin dira lanak pixka bat. Baina ez du atzerapenik sortu, epe orokorrera begira, behintzat", dio Manu Diezek.

Gabiria dorretxea berriztatzeko lanak joan den udan, 2006ko uztailean, hasi zituzten. Urtebete inguru iraungo zutela iragarri zuten orduan, eta epeak beteko dituztela uste dute Tavex ehungintza enpresakoek: lanak abuzturako bukatu, lekualdaketa irailean egin eta dorretxe eraberritua urrian inauguratzeko asmoa dute.

**ERAKUSKETA PRESTATZEN**

Lanekin batera, eraikineko lehen solairuan egongo den erakusketa prestatzen ere badabiltza. Bergarako ehungintza nolakoa izan zen erakusteko erakusketa izango da, eta, horregatik, arlo horrekin lotutako elementuak batzen ari dira: argazkiak, lanerako tresna zaharrak, diplomak, beiratu bat eta baita duela urte askoko pasadizoak ere: "Teilatuan arrantza egiteagatik kaleratu zuten langilearen kasua, adibidez", azaldu du Manu Diezek.

Gabiria dorretxea Udalarena da eta 2005eko apirilean sinatu zuen hitzarmena Tavex Algodonera enpresarekin. Horrela, 30 urterako erabilpena emango dio eraikinari Udalak. Era berean, dorretxea berriztatzeko ardura hartu zuen lantegiak. Lanen aurrekontua milioi eta seiehun mila euro da: hain zuzen ere, erdia lantegiak ordainduko du eta beste erdia erakundeek, Udalak eta Aldundiak.



**DORRETXEA** Gabiria dorretxea kanpotik konpontzeko lanak bukatuta daude dagoeneko. O.E.

> HAUTESKUNDEAK 07

## 171 herritar zozketatu dituzte hautes-mahaietarako

Guztira 171 herritar zozketatu dituzte hauteskunde egunean hautes-mahaietan egoteko. Astelehenean egin zuten zozketa osoko bilkuran.Bergaran 19 hautesmahai egongo dira maiatzaren 27an, eta han egon behar duten herritar titularrak eta ordezkoak, guztiak, zozketatu zituzten astelehenean. Udaltzainak etxera eramango dio jakinarazpena dagokionari datozen egunetan. Aukeratutakoek apelazioa aurkez dezakete Hauteskunde batzordearen aurrean.

> PAZKOAK 07

## Txosnak jartzeko baimena eskatzeko epea zabalik dago

Bergarako Mendekoste jaietan txosna jartzeko baimena eskatu behar da, eta horretarako epea zabaldu du Udalak. Maiatzaren 10a baino lehen eskatu behar da txosna jartzeko baimena udaletxean; maiatzaren 10eko 12:00etan bukatzen da epe hori, hain zuzen ere. Txosna jartzeko baldintzen orria eta baimena eskatzeko bete behar den eskaera orria udaletxeko idazkaritzan jaso daitezke. Maiatzaren 25etik 29ra dira aurtengo Pazko jaiak.

> ENPRESA

## Finantza jardunaldiak antolatu ditu Elkargik

Finantza jardunaldiak antolatu ditu Elkargik Bergaran. Debagoieneko eta Debabarreneko enpresariendako jardunaldiak dira, eta hauexek dira jorratuko dituzten gaiak: *Merkatuko finantza-linea eta laguntza onenetara nola iritsi 2007an* eta *Familia protokoloa nola ezarri eta oinordetza prozesua nola planifikatu*. Hitzaldi biak Miguel Altunan dira, 18:00etan; bata hilaren 7an eta bestea 14an.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
MUJIKA BURDINDEGIA
BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA
Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

Ion Murgizu Pinturak
Margoketa orokorrean
- Enpapelatuak
- Iztukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industriala

Zabalotegi 9, 2. esk • **Bergara**
Esozia 24- 2º behea • **Soraluze**
Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30



MENDIA *Nire Himalaya* izeneko mendiko dokumentala erakutsiko dute gaur UNEDen. GOIENKARIA

**JAUNARTZEAK** > DOMEKAN DA LEHEN ELIZKIZUNA

## Herriko 86 umek egingo dute lehen jaunartzea aurten

San Pedron, Santa Marinan eta Uberan egingo dituzte jaunartzeak

**O.E.** > BERGARA

Aurten herriko 86 umek egingo dute lehen jaunartzea. Hiru domekatan egingo dituzte jaunartzeak: domekan, maiatzak 6, San Pedro parrokian egingo dute 44 umek; hurrengo domekan, maiatzaren 13an, Santa Marinan egingo dute beste 42 umek eta maiatzaren 20an, Uberan hartuko dute jauna lehen aldiz bi umek.

**IAZ BAINO GUTXIAGOK**

Zenbakiei begiratuta, joan den urtean baino ume gutxiagok egingo dute aurten lehen jaunartzea: San Pedron bi elizkizun egin zituzten iaz, baina aurten bakarra egingo dute. Santa Marinan jaitsiera txikiagoa izan da: iaz baino hiru gutxiagok egingo dute aurten jaunartzea. Uberan egingo dutenak Santa Marinan prestatu dira. Elizkizun guztiak euskaraz dira.

**KILOMETROAK 07** > ARANZADI IKASTOLAK ANTOLATUTA

# Kilometroen aldeko kirol asteburua, gaurtik

Alberto Iñurrategik 'Nire Himalaya' dokumentala dakar; xiba jokoa eta bizikleta irteera ere badaude

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Kilometroen aldeko kirol asteburua antolatu dute gaurtik, egubakoitza, domekara bitartean: Alberto Iñurrategiren *Nire Himalaya* ikus-entzunezkoa, xiba euskal jokoen Gipuzkoako jaialdia eta mendiko bizikleta ibilaldia Urkulura.

**ALBERTO IÑURRATEGI**

Antolatutako lehen ekitaldia gaur, egubakoitza, egingo dute. Alberto Iñurrategi mendizaleak *Nire Himalaya* ikus-entzunezkoa aurkeztuko du, haren anaia Felix hil ostean egindako mendiko dokumentala. Sari asko jaso duen dokumentala da. Ekitaldi hori UNEDeko areto nagusian izango da, 22:00etan. Zapatuan, xiba euskal jokoaren Gipuzkoako jaialdia egingo dute Aranzadiko jolastokian. Idiazabaldik, Zizurkildik, Asteasutik, Oiartzundik eta Zarauztik, etorriko dira, besteak beste. 12 lagunek osatutako taldeak dira eta 17:00etan hasiko dute jaialdia. Domekan Urkulura egingo dute ibilaldia mendi bizikletan. Aranzadiko jolastokian da irteera, 09:30ean.

**UDA** > UZTAILERAKO EDO ABUZTURAKO

## Aldi bateko egonaldietan izena emateko epea zabalik

Mendekotasun maila eta mediku txosten eguneratua ere aurkeztu behar dira

**O.E.** > BERGARA

Udan aldi baterako egonaldietara joateko izenemate epea zabalik dago. Uztailerako edo abuzturako egin daitezke eskaerak: lehen aukerako eskaerak maiatzaren 15a aurretik egin behar dira eta bigarren aukerako, maiatzaren 31 aurretik.

**AURKEZTEKO AGIRIAK**

Udako egonaldiak Gipuzkoako, Nafarroako eta Bizkaiko zentroetan egingo dituzte. Leku kopurua mugatua denez, muga egunetatik kanpo jasotzen diren eskaerak leku hutsak dauden neurrian hartuko dira kontuan. Bestalde, irizpide hauek hartuko dituzte kontuan lekuak emateko: egonaldietako lehentasunen baremoa, adinekoaren mendekotasun maila eta eskaera jasotzeko eguna. Mendekotasun mailari dagokionez, mendekotasun aitortua dutenen eskaera bakarrik hartuko dute.

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA
Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak • Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34



POL-POL
Taberna
943 76 07 78. Bergara

LIKIDAZIOA ITXIERAGATIK
TABERNARAKO EKIPAMENDUA
Makineria, baxera, mahaiak, aulkiak, fokoak,...
HAUR JOLASAK
Ohe elastikoa, txirristak, bolak, zoru tapizatua, ...
OKIPARK - BERGARA
943 76 94 52

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

**HIRIGINTZA** > URTE BUKAERAN HASIKO DITUZTE LANAK

# San Lorentzo auzoko urbanizazioa berritzeko proiektua onartu du udalbatzak aho batez

Auzotarrek 200 sinadura batu eta idatzi batekin udaletxean aurkeztu zituzten, auzoa konpontzeko eskatuz



**SAN LORENTZO** 30 urte ditu San Lorentzok, eta urbanizazioa berrituko dute. O.E.

**OIHANA ELORTZA** > OÑATI

San Lorentzo auzoko urbanizazioa konpontzeko proiektua onartu zuen aho batez udalbatzak apirileko osoko bilkuran. Auzo horretako espaloiak, eserlekuak eta farolak konponduko dituzte, besteak beste. Ia milioi bateko aurrekontua du proiektuak.

**LAU ZATITAN BANATU AUZOA**

Proiektu hori egiteko lau zatitan banatu dute auzoa: "Zati bakoitzean markatu ditugu konpondu behar diren ertzak, eserlekuak, farolak eta dena delakoak. 400 elementu baino gehiago markatu ditugu. Espaloia, adibidez, 10.000 metro koadro baino gehiago konponduko dugu; oraingo harri borobil txiki hori kendu egingo dugu eta *Oñatiko baldosak* bezala ezagutzen diren baldosak jarriko ditugu", azaldu du Anjel Biainek, Hirigintza zinegotziak.

**IA MILIOI BAT EURO**

Proiektuak ia milioi bateko aurrekontua du. 140.000 euro daude jarrita proiektu horretarako eta irailean ikusiko dute 2008ko aurrekontuetatik zenbat gordetzen duten. Azaroan edo abenduan hasiko dituzte lanak: "Aukera bat zen apurtuta dauden elementuak konpontzea eta bigarrena, konpontzeaz gain, elementu berriak ere jartzea. Azkenean, bigarren aukeraren alde egin dugu", jarraitu du Biainek.



GOIENKARIA

## Espainiako txapelketaren bidean

Espainiako txapelketara iristeko bidean daude Aloña Mendiko eskubaloiko kadete mailako neskak. Datorren asteburuan, maiatzaren 11n, 12an eta 13an, Gijonera (Asturias) joango dira lehen fasea jokatzera. Asturias, Kantabria eta Galiziako beste hiru talderen aurka jokatuko dute Aloña Mendiko neskek; egun bakoitzean partidu bat jokatuko dute. Lehen fase horretatik irabazle ateratzen badira, Espainiako txapelketako finala jokatuko dute. Maiatzaren bukaeran izango da hori.

**POLITIKA** > APIRILEKO OSOKO BILKURAN

# Azken agintaldiko balantzea egin dute Udaleko alderdiek

Balantze positiboa egin du EAJ-EAk; ez horrenbestekoa gainerako alderdiek

**O.E.** > OÑATI

Azken agintaldiko, azken lau urteetako, balantzea egin zuen udalbatzak azken osoko bilkuran, apirilaren 26an. Osoko bilkuraren bukaeran egin zuen, gai zerrendan zituzten puntu guztiak eztabaidatu ostean.

**5.600 EURO BIZTANLEKO**

Lourdes Idoiaga alkatea hasi zen azken lau urteotako balantzea egiten, egindako akatsak bere gain hartuz: "Lau urtean 60 milioi euroko aurrekontua izan du Udalak, 5.600 euro inguru biztanle bakoitzeko. Inbertsio errealak, berriz, 22 milioikoak izan dira; 5,5 urteko, bataz beste", argitu zuen alkateak.

Inbertsioen artean, honako hauek aipatu zituen alkateak: San Martin egoitzako lanak, euskaltegi berria, kiroldegiko obrak, Arrikrutzeko kobak, gutxituendako lokala, Iturrigorriko pagadia eta irisgarritasun planaren lehenengo fasea. Baina horri besteko garrantzia eman zion alkateak zerbitzuen hobekuntzan egindako lanari. Horrekin batera aipatu zituen, besteak beste: Zubillagako hiltegia ixtearen aurka egotea, 12 eta 17 urte bitarteko gazteendako aisialdi programa martxan jartzea, Kontseiluak emandako hirugarren saria, etxebizitzen sustapena bultzatzea eta eskolaz kanpoko kirolaren garrantzia.

**EB, PP ETA EREITTEN**

Ezker Batuko Karmelo Perezek esan zuen herritarren partehartzea bermatu behar duela Udalak eta garraio publikoan gehiago egin behar dela ere esan zuen. Bestalde, aipatu zuen gazteek erakutsi dutela autogestioa egin dezaketela.

Alderdi Popularreko Julio Perez de Arriluzeak salatu zuen udal jarrera hizkuntzarekiko: euskara bakarrik erabiltzea.

Bestalde, Ereitten plataformako Marijo Altube poztu egin zen "hitz politen eta ekintza urriko" agintaldia amaitzeaz eta hurrengoan egoera ez errepikatzea espero duela esan zuen. Esperientziatik denek ikasi behar dutela esan zuen.

**UDALEKUAK** > UDALEKU IREKIAK

# Begiraleak kontratatu gura ditu Udalak uztailerako

UEUko ikastaroetara joateko bekak emango dituela ere iragarri du

**O.E.** > OÑATI

Uztaileko udaleku irekietarako begiraleak kontratatzeko deialdia egin du Udalak. Asmoa da uztailean Oñatin egingo dituzten udalekuetako begiraleei behin-behineko lan kontratua egitea. Horretarako, eskaerak aurkeztu behar dituzte interesatuek. Hautaketako prozesuaren oinarriak nahiz eskaerak egiteko orriak udaletxeko bulego orokorrean jaso ditzakete interesatuak. Maiatzaren 10a da eskaerak egiteko azken eguna.

**UEU-RAKO DIRULAGUNTZAK**

Bestalde, aurten ere Udalak dirulaguntzak emango ditu Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroetara joateko. Horretarako baldintzak eta betebeharrak ere udaletxean daude.

**'Asteleheneko Goienkaria', Debagoieneko kirol taldeekin**

**Arrasate Rugbi Taldea 06-07**
**astelehen honetan, *Asteleheneko Goienkaria*-rekin**

Debagoieneko kirol taldeen posterrak argitaratzen dihardu astero *Asteleheneko Goienkaria*-k.
Oraingo astelehenean, maiatzak 7, Arrasate Rugbi Taldearenak argitaratuko ditugu.
Taldeko jokalari guztiak lau argazkitan, jokalari eta arduradunen izen-abizenekin jasoko duzu, erdi-erdian, koloretan.

Ez galdu aukera eta eskuratu *Asteleheneko Goienkaria.*




Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Jaia Laia eta **berria**ren eskutik
Fermin Muguruzak prestatutako musika bilduma bikaina




## ‘Musika Munduko Jolastokian’

- EUSKAL HERRIA *J.C.Perez: Flannery eta bere astakiloak*
- JAMAIKA *Cedella Marley-Booker with Taj Mahal: Smilin' island of song*
- EUSKAL HERRIA *Jabier Muguruza: Ja, ja*
- LIVERPOOL *The Beatles songs: All you need is love*
- KUBA *Liuba Maria Hevia: Travesía mágica*
- HEGOAFRIKA *Ladysmith Black Mambazo: Gift of the tortoise*
- NEW ORLEANS *Buckwheat Zydeco: Choo choo boogaloo*
- MEXIKO *Los Lobos with Lalo Guerrero: Papa´s dream*

*Maiatzaren 5etik aurrera*
*larunbatero disko bat kioskoan*




+ 5,30 €

HARPIDEDUNENTZAT,
**%20 merkeago**
*Eskaria egiteko:* 943 30 43 45

Harpideduna ez bazara, **egin zaitez BERRIAren harpidedun**, hilean 27 euro bakarrik ordainduta*: egunero etxean hartuko duzu egunkaria, eta doan izango duzu bilduma hau.

*Asteartetik igandera urte osorako harpidetza berria egiten dutenentzako promozioa. Bilduma osatzen denean, etxera iritsiko zaizu, jasotzeko inolako kosturik gabe.

Babeslea
Gipuzkoako Foru Aldundia

AUKERA ezazu, BIZI euskaraz **berria**



# Amaia Iriarte Arenaza

Medikuntzako Lizentziaduna ZK.75 41

## HOMEOPATIA

*“ Osasuna gorputzaren eta buruaren arteko oreka da ”*
*“ Ez dago gaixotasunik, gaixoak baizik ”*

* Pertsona bakoitzari egokitutako tratamendua baita jaioberri, ume, haurdunentzat...

* Beste tratamendu askorekin osatzen den mediku terapia da.
- Alergiak
- Arnas aparatua
- Arazo digestiboak
- Zirkulazio arazoak
- Dermatologia
- Emozioak
- Arazo osteo-muskularrak

RPS 13/07



**Photon terapia**


**Moraterapia**


**HLBO**
Odola mikroskopioaren bidez analizatzeko sistema


**BETA ANALISIAK**
Odol, txistu eta txizaren analisiak

**www.amaiairiarte.com** • info@amaiairiarte.com • Nafarroa etorbidea 11, ARRASATE • Tel.: 943 08 11 00 / 695 78 19 21

**INDUSTRIALDEA** > ARETXABALETA ETA ARRASATE ARTEAN

# Herriko iparraldeko sarreran industrialdea egitea aztertzen dabiltza

Aretxabaletak eta Arrasatek daukate interesa, eta Debagoieneko Industrialdearen aginduz LKS dabil azterketa lana egiten

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Arrasaterekin muga egiten duten lurretan, iparraldeko sarreraren gainaldean daudenetan, industrialdea egin gura du Udalak. Horretarako azterketa lana egiten dabil LKS.

**AZTERKETA LANA**

Ez da kontu berria Udalak industrialdea egin gura izatea 1-b alderdian, Arrasaterekin muga egiten duten lurretan. Industria-lur izendatuta dago arau subsidiarioetan aspalditik, eta aurreko agintaldietatik dator herriko hainbat enpresa bertara eroateko asmoa.



**INDUSTRIALDEA** Aretxabaleta goitik ateratako argazkian, eta bukaeran, iparraldeko sarreran, industrialdearendako lurrak. UDALA

Geroago, Arrasatek ere asmo bera azaldu zuen, eta industria-lur izendatzeko aldaketak egiten hasi zen. Hori ikusita, Debagoieneko Industrialdeak azterketa lana eskatu zion LKSri, baina Aretxabaletako Hirigintza teknikariek oraindik ez dute emaitzen berri.

**BIRZIKLAPEN ENPRESAK**

Aretxabaletako lurrek 48 mila metro koadro dituzte. Lausitta kaleko 28. zenbakitik aurrera joanda, Deba ibaiaren eskumako aldetik eta Santutxo ermita ostetik, Arrasatera doan errepide alboko lurrak dira, Arbizelaiko harrobiraino igotzen direla. Beste aldetik, ostera, autobidearen azpitik pasatzen dira lurrok.

Udalaren asmoa litzateke birziklapenarekin zerikusia duten enpresen kokalekua izatea aipatutako industrialdea; Bañu-Etxe txatartegiarena, esaterako.

Asmoak asmo, poliki joango dira lanok; izan ere, gaur egun autobideko kontuek daukate 1-b alderdi guztia hartuta: batetik, lur mendien pilaketak eta bestetik, kamioiendako bideak. Gainera, Arrasatek ere interesa azaldu duenez batera egitea gurako lukete. Arrasateko lurrak, baina, ez dira Udalarenak, eta aurretik erosi egin beharko lituzke. Arrasateko lur horien azpitik, gainera, tunela pasatuko da, eta eragozpenak sor daitezke. Hortaz, LKSren azterketa jaso ostean erabaki beharko dute zelan bateratu, eta hori datorren agintaldian izango da.

**UDALA** > IRAGARKI-TAULAK

# Argibideak emateko taulak jarri dituzte

Oharrak, deialdiak, berriak... emateko izango dira taulak, eta edonork erabili ahal izango ditu

**M.A.** > ARETXABALETA

Joan zen astean ipini zituzten iragarki-taulak jartzeko egiturak. Herriko hainbat lekutan jarri dituzte, eta datozen egunotan bukatuko dituzte lanok.

Udalak uste du txukunago geratuko direla ohar, deialdi, berri eta gainerako kartelak taületan itsatsita, eta horretarako 8.032 euro bideratu ditu. Udaletik bidalitako oharrak eta herritarren eta elkarteen deialdiak jasoko dituzte taulek. Horrenbestez, hauteskunde garairako gertu egonez gero, bertan jarri ahal izango dituzte iragarkiak herriko alderdiek.



**TAULAK** Langileak iragarki-taulak jartzen udaletxe zaharrean, joan zen astean. M.A.

Album analogikoa 600 €
Album Digitala 950 €
www.bodaseuskadi.com
Herriko Plaza 10 Aretxabaleta 943 771255
Mini-album digitala 200 €
Digital luxe albuma ...Kontsulta ezazu prezioa
2007rako azken erreserbak, 2008rako erreserba egin
Familiako argazkiak opari

**HAUTESKUNDEAK** > ARETXABALETAKO ABERTZALE SOZIALISTAK

# Hauteskundeetan egongo diren ziurtasunaz eskerrak eman gura dizkiete sinatutakoei

Aretxabaletan 100 sinadura behar zituzten plataforma sortzeko, eta 492 jaso zituzten bost egunean

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Aretxabaletako Abertzale Sozialista hautes-elkarteak 492 sinadura batu zituen. Pozik daude horregatik, eta herritarrek hauteskundeetan egon daitezen gura dute.

**MARKO DEMOKRATIKORANTZ**

Bost egunean batu zituzten 492 sinadurok, opor tartean gainera, eta, babes zabala jaso dutela ikusita, aretxabaletarrek ezker abertzalea udaletxean gura dutela diote AAS taldeko kideek. Eta galdera bota dute: "Lau urte apartheid egoeran egon ostean, berriz ere ausartuko dira herriaren nahia zapuztera?".




**HAUTAGAIAK** J. Zaloña, A. Bilbao, J. Atxaga (alkategaia), M. Bengoa, U. Altuna, eta H. Arrese, O. Amozarrain, A. Filarmendi. AAS

Diote ezker abertzalea bere eskuetan dagoen guztia egiten dabilela prozesuak aurrera egin dezan, eta "hor kokatzen dugu marko demokratikorantz bidea egiteko egin dugun proposamena". Eta azaldu dute EAJ eta PSOE, ostera, prozesuari ateak itxi eta euren negozioei begira daudela. Hala ere, hauteskundeetan egongo direlakoan daude, "herriaren nahia horixe delako".

**HAUTESKUNDEAK**

## 'Aretxabaleta biziberritu' bloga, EAk

Proiektu politikoa zabaldu eta iritziak jasotzea du helburu

**M.A.** > ARETXABALETA

Bloga jarri du abian Aretxabaletako EAk, *Aretxabaleta biziberritu* izeneko bloga. Eusko Alkartasunaren proiektu politikoa ezagutzera eman eta aretxabaletarren iradokizun eta gogoetak jasotzea du helburu ekimenak.

Webgune hutsa izan beharrean blog formatua aukeratu dute EAko kideek, dinamikoagoa delako. Edozeinek har dezake parte honako helbidean sartuta: *http://ea-aretxabaleta.blogspot.com.* Bertan azalduko diren artikuluak erantzutera animatu gura dituzte herritarrak, "eztabaida eta hausnarketa sortzeko".

**HAUTESKUNDEAK** > PSE-EE-KO ALKATEGAIAREN AURKEZPENA

# Herritarrengandik gertu egonda lan egingo duela dio Ainhoa Sagarribai alkategaiak

Herriaren beharrak azpimarratu zituen eta arazoei zela egingo dien aurre azaldu zuen alkategaiak

**M.A.** > ARETXABALETA

Batzar Nagusietarako hautagai den Miguel Buen Lacambrak aurkeztu zuen PSE-EEko alkategaia, Ainhoa Sagarribai aretxabaletarra. Eta gaineratu zuen, lan handia egingo dutela Aretxabaletaren alde biak ala biak hautatuz gero.




**AURKEZPENA** Miguel Buen Lacambra Batzar Nagusietarako hautagaia eta Ainhoa Sagarribai alkategaia. M.A.

**PROIEKTUEI JARRAIPEN ZUZENA**

Lehenengo aldiz aurkeztu da 33 urte dituen Sagarribai Udalean parte hartzeko, baina PSE-EEk Gasteizen duen idazkaritzan egiten du lan. Aita, Angel Sagarribai, hiru legegintzalditan izan zen zinegotzi, 1985 eta 1997 artean, eta oraingoan bigarrena da zerrendan.

Herritarrengandik gertu egon gura duela esanaz hasi zuen aurkezpena Sagarribaik, eta Debagoienaren alde egingo duela. Aretxabaletaren behar eta arazoak zeintzuk diren azaldu zituen gero banan-banan. Tranbiaren garrantzia azpimarratu zuen, eta hiriburuekin lotura hobea behar dugula esan. Garapen iraunkorraren alde azaldu zen, kutsadura murriztu eta bidegorria bultzatuz. Era berean, gaineratu zuen aparkalekua arazo bihurtu dela gure herrian, eta lur azpiko aparkalekuak egitearen alde azaldu zen. Gizarte politika bultzatuko duela ere esan zuen, larrialdietarako baliabideak gehitu eta berdintasun planaren alde lan eginda. Eta Udaleko proiektuei jarraipen zuzena egingo diela argitu zuen: zaharren egoitza berria, kirol etxea eta etxebizitzaren arazoa, esaterako. Azken horiei dagokienez, Debagoieneko garestienak ditugula aipatu zuen, eta orain arteko Udalak egin ez duen moduan, babes ofizialekoak bultzatuko dituela.

> EUSKARA

### Oporrak brigadista lanak eginda pasatzeko argibideak

Askapena taldeko kideek azalduko dute munduko hainbat herritara brigadista moduan joanda oporrak zela pasatu beste era batera. Loramendi EEk gonbidatuta etorriko dira, eta maiatzaren 10ean, eguena, izango da berbaldia, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

> PARROKIA

### Lourdesera erromes joateko izenematea zabalik dago

Pastoral barrutiak hainbat txango antolatu ditu Lourdesera: lau egunerakoa hilaren 17tik 20ra, aste bukaerakoa hilaren 19 eta 20an eta egun bakarrerakoa, 19an. Izena emateko Jose Luis Arratibel sakristaurengana jo.

Goi mailako heziketa zikloetarako sarbide froga prestatzea nahi duzu? **21** urte baino gehiago edo **2** urtetako lan esperientzia baduzu

Etor zaitez **IEFPS ARETXABALETA GLHBI**ra eta informa zaitez

*Etxebarri auzoa, z/g*
*20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)*
*Tels.:943 79 79 00 / 943 77 09 55*
*E-mail: ia@iaretxabaleta.com Web orria: www.iaretxabaleta.com*

IEFPS Aretxabaleta GLHBI — Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco — Euskadi 2006

Mobiliario ARENAZA

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

> JAIAK

## San Pedro jaietarako egitarauaren azalaren lehiaketa

Udalak San Pedro jaietarako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Lehiaketan edozeinek esku hartu ahal izango du eta teknika librea izango da.

Azalak derrigorrez honako testua izan beharko du: *2007 San Pedro Jaiak. Eskoriatza*; eta 21x10 zentimetroko neurria izan beharko du. Lanak ekainaren 1a baino lehen bidali beharko dira udaletxera edo kultura etxera; eta irabazleak 300 euroko saria jasoko du. Lan hori Udalaren esku geldituko da.

> AITZORROTZ ELKARTEA

## Aitzorrotz kultura elkarteak egitarau berezia antolatu du

Hilaren 12an Aitzorrotz kultura elkarteak egun berezia ospatuko du. Horretarako, egun osoko egitaraua antolatu dute. Goizetik gauera bitartean txistulariak, erakusketa, kalejira, magia erakustaldia, kapoeira, kontzertuak eta herri bazkaria egingo dituzte, besteak beste.

Herri bazkarirako txartelak salgai daude Inkernun, Gozo-Txikin eta Aldatzen, 15 eurotan.

> LEHIAKETA

## 'Mundua bertan' lehiaketaren hirugarren galdera

*Mundua bertan* lehiaketarako erantzunak *lehiaketak@eskoriatza.net* helbidera bidali.

Erromantizismo garaian bazen Euskal Herrian idazle bat Errepublikazale eta herrizale sutsua zena. Idazle hark asmatu zuen Aitor patriarkaren mitoa. Euskaraz gutxi idatzi bazuen ere, bere lanen artean *Azti-begia* ezaguna da. Gainera, idazle zuberotar hari lehen euskal aldizkaria (astekaria) ere zor zaio. Esango al diguzu zein den aldizkariaren izena eta noiz kaleratu zen?

**MERKATARIAK** > BEZEROEN ALDEKO KANPAINA

# Loreak eskuratzeko kanpaina herriko merkatarien eskutik

Bihartik, zapatua, aurrera loreak trukatzeko bonuak banatuko dituzte herriko hainbat saltokitan. Hilaren 12an loreen azoka jarriko dute plazan

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Herriko hainbat merkatarik loreen gaineko kanpaina bultzatuko dute bihartik, zapatua, hasita. Aurtengoa herrian kanpaina antolatzen duten hirugarren aldia da.

**3.000 TXARTEL BANATU**

Hala, astean herriko 20tik gora saltokitan bezeroen artean 3.000 bat txartel banatuko dituzte. Egubakoitza, hilaren 11, izango da horretarako azkeneko eguna. Ez dituzte txartelak erosketa kopuruaren arabera banatuko. Merkatarien helburua da bezero guztiei halakoak ematea. Behin astea igaro ondoren, zapatuan, hilaren 12an, loreen azoka egingo dute Herriko Plazan. 09:30etik 15:00etara bitartean Urtinea enpresa hernaniarrak loreen saltokia jarriko du. Hala, aipatutako saltoki eta negozioen bezeroek astean eskuratutako txartelak loreengatik trukatu ahal izango dituzte. Bestalde, aipatutako txartelak trukatzeaz gain, gura duenak aukera izango du gura dituen loreak erosteko.



**LORE AZOKA** Argazkian, iaz Herriko Plazan merkatariek egin zuten lore azoka. GOIENKARIA

**USADIOA** > ATXORROTZ EGUNA

# Etzi, domeka, Atxorrotzera txangoa

Atxorrotzetik bueltan, dantza emanaldia eta tortilla-jana egingo dituzte Herriko Plazan

**I.B.** > ESKORIATZA

Etzi, domeka, Atxorrotz Eguna ospatuko dute eskoriatzarrek. Egun xume baina berezia da herritarrendako; eta oso harrera ona du.

09:00etan txistulariek diana joko dute, eta 09:30ean Atxorrotzera igotzen hasiko dira. 11:00etan, berriz, meza esango dute tontorrean; eta horren ostean, Sorkunde eta Jon trikitilarien emanaldia izango da.

Ez dute herri bazkaririk egingo, baina tabernan ogitartekoak eta kafea salduko dituzte.

Ospakizunak kalean jarraituko du 18:30ean. Herriko dantzariek emanaldia egingo dute; eta tortillak banatuko dituzte.



**TRIKITILARIAK** Aurten ere trikitilariak entzuteko aukera egongo da. GOIENKARIA

LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI

Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

> HAURRESKOLA

### Matrikulazio epea zabalik egongo da hilaren 17tik 31ra

Haurreskola Partzuergoaren Antzuolako Haurreskolan irailean hasteko asmoa dutenek maiatzaren 17tik 31ra dute matrikulatzeko epea. Horretarako umea herrian erroldatuta egon behar da. Informazio gehiago emango dizuete Haurreskolan bertan, Herri Ikastetxearen eraikinean. Datorren ikasturtean irailaren 6an zabalduko dute Haurreskola.

> TXIRRINDULARITZA

### Arantzetak irabazi du Labegaraietako lasterketa

Martitzenean Bergarako Labegaraietako lasterketa irabazi zuen Xabier Arantzeta kadete mailako txirrindulari antzuolarrak. Sumofic taldean dabil Arantzeta eta denboraldiko hirugarren garaipena da oraingo hau.

Aitor Mendizabal pilotariak, berriz, Elgetako ETB Kantxa lau t'erdiko txapelketako bigarren partidua irabazi zuen. 22-8 irabazi zion Pikabea beratarrari.

**NEKAZARITZA** > AURREKO ASTEAN BUKATU ZUTEN LIZARRAGAKO ZUBIA KONPONTZEN

# Baserri bide batzuk konpontzen dihardute, Nekazaritza batzordearen laguntzarekin

Udaleko Nekazaritza batzordeak 11.530 euroko inbertsioak egingo ditu 2007. urtean, aurrekontuen arabera



**LIZARRAGA** Konpondu berri duten Lizarraga auzoko zubia. A.I.

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Aurtengo udaberrian hiru baserri bide konponduko dituzte. Aurreko astean bertan amaitu zuten horietako bat konpontzen, Lizarragako zubia, hain justu.

Egoera txarrean zegoen zubi hori, Bizkalatza baserrira doana. Dina Mukikak, Nekazaritza batzordeko buruak azaldu digunez, aspaldiko zubia izanda ez zegoen pisu handiak hartzeko prestatuta eta denborarekin egitura hondatu egin da. 11.000 euro inguruko gastua izan dute lanok; erdia Udalak hartu du bere gain eta beste erdia auzotarrek.

Bestalde, Gorriz eta Urruti baserriak lotzen dituen pistan ere egingo dituzte konponketak. Izan ere, Gorriz baserriaren parean, pistara sartzen den tokian, gune hori egoera txarrean dago. Oraindik, baina, zehaztu gabe dute zein lan egingo dituzten.

Azkenik, Bazterriña baserrietarako bidea ere konponduko dute. Udalak materiala jarriko du (2.500 euro inguru) eta lanak auzotarrek egingo dituzte.

Dina Muxika pozik azaldu da lau urteotan batzordeak egindako lanarekin, eta, bide batez, eskerrak eman nahi izan dizkie batzorde horretan parte hartu duten auzo alkate guztiei.

Aipatzekoa da, azkenik, Udalak esku artean duela baserrietara Urkuluko ura eramateko eta saneamenduko azpiegiturak egiteko aurreproiektua. Laster izango dute proiektua zehaztuta.

# Kalebarrengo azpiegitura eta zoladura lanak hasi dituzte

Lehen Buztinzurin egin zuten bezala, orain Kalebarrenen hasi dira hainbat lan egiten. Batetik, azpiegiturak berrituko dituzte: saneamendua, argiteria, hoditeria eta abar. Bestalde, lurzorua edo zoladura berria jarriko dute. Herriko Plazan ere hasita daude lurzorua jartzen. Horrela, pixkanaka, alde zahar osoa eraberritzen dihardu Udalak.



A.I.

**bere ustez**



Joseba Lezeta

## Mairua ez, gu baizik

Euskal Herriko alardeen mintegia eta bilkura egingo dira aste honetan Antzuolan. Kezka baten ondorio dira ekitaldiok. Antzuolako Mairuaren Alardearen Elkarteak jarri du abian asmoa, gure herriak duen erakusgarri nagusietako bat aldaketa beharrean ikusi duelako.

Arduradunen artean bada kezkarik. Batetik, jendearen parte-hartzea nola bultzatu. Horretan eredu dira Hondarribia eta Irun, oso festa herrikoia egiten dutelako. Beste kontu bat dira emakumeen eskubideen inguruko istiluak. Antzuolako alardearen kasuan, azkenaldi honetan mairuaren pertsonaia dela eta agertu dira kexak eta mespretxua aipatu dute.

**"Mairuaren Alardea Antzuolak gorde duen altxorra da eta indartu egin beharko litzateke"**

Antzuolako hainbat eragileri galdeketa egin zaie eta mahai gainean egongo da azterketa mintegian. Ikusteko dago aldaketarik proposatuko den ala ez. Mairuaren figura hor dago, baina ekitaldi honen funtsa beste bat da: sasoi bateko arma-ikustatzea, Euskal Herriari, foruei eta herri izaerari hain lotua. Antzuolak gorde duen altxorra da eta indartu egin beharko litzateke, egokituz baina aldi berean eutsiz. Hemen ez dago jokoan mairua, gure nortasuna baizik.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

**ZERGAK** > TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUAK

# Zabalik dago ibilgailuen zerga ordaintzeko epea

Maiatzaren 9an zordunduko dira helbideratutako ordainagiriak

**L.Z.** > ELGETA

Apirilaren 10etik ekainaren 10era bitartera dago zabalik trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea.

Udalak jakinarazi du helbideratutako ordainagiriak maiatzaren 9an zordunduko direla baimendutako erakunde eta kontuetan.

Helbideratuta ez dauden ordainagiriak posta arruntaz bidali dira zergadunen helbide fiskaletara. Ordainketa edozein banketxe edo aurrezki-kutxetan egin daiteke. Ordaintzerakoan, bidalitako ordainagiri osoa aurkeztu behar da. Une horretan, gainera, hurrengo ordainagiriaren helbideratzea egiteko eskaera egingo zaio zergadunari.

Ordainagiriak etxean jaso ez dituzten zergadunek, berriz, udaletxean eskatu beharko dituzte. Eskaria jendaurreko bulego-orduetan egin behar da.

**AZKEN EPEA, EKAINAREN 10A**

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea ekainaren 10ean amaitzen da. Elgetako Udalak jakinarazten du borondatezko epe hori amaitutakoan ordaindu bako ordainagiririk balego, premiazko tramitera joko duela.

**LIBURUTEGIA** > 7.000 LIBURU INGURU DAUDE DAGOENEKO 'ON-LINE' KATALOGOAN SARTUTA

# Chiara Gartzia andoaindarrak jarraituko du liburutegiaren automatizazio prozesuarekin

'Irakurri, gozatu eta oparitu' egitasmoa abian da Elgetan; liburuak merkeago erosteko aukera paregabea



**CHIARA GARTZIA** Sei hilabeteko kontratua egin dio Udalak andoaindarrari. L.Z.

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Aurrera doa Elgetako Udal Liburutegiko automatizazio prozesua. Hilabeteak geldirik egon ostean, Chiara Gartzia andoaindarrak emango dio jarraipena.

Gartziak 29 urte ditu eta Dokumentazioa eta Biblioteconomia ikasi ditu. Eskarmentu handikoa da horrelako lanetan; izan ere, Astigarraga, Alegia, Donostia, Bilbo, Getaria, Legorreta, Artium eta Eibarko liburutegietan lan egindakoa da.

**OPARITZEKO DESKONTUAK**

Topagunea Euskara Elkarteen Federazioaren Kultura Sailak antolatutako egitasmoa da *Irakurri, gozatu eta oparitu*. Hamahiru herrik egin dute bat proiektu horrekin; tartean Elgetak. Kanpaina horri esker, liburuak oparitzerakoan deskontu interesgarriak lortzeko aukera izango dute Elgetako irakurleek.

Maria Elena Eztenaga liburuzainak euskarazko 40 bat liburu ditu kanpaina horren barruan maileguan emateko prest. Irakurritakoan, horri buruzko iritzia biltzeko fitxa bete beharko da, eta, trukean, liburu hori beste lagun bati oparitzeko %25eko deskontua lortuko du irakurleak; eta %50ekoa Goibeko euskara elkarteko kide baldin bada.

**ASENTZIO EGUNA** > MAIATZAREN 20AN IZANGO DA AURTEN

# Umeen dantzak, herri bazkaria eta baltsa lehiaketa egingo dituzte maiatzaren 20an

Elgetako umeak barikuro batzen dira kiroldegian, Zazpi Jauzi, Txulalai eta Saint Petit dantzak Asentzio Egunerako ikasteko



**MAIATZAK 20** Gaztetxeak antolatzen du urtero Asentzio Eguna. ARTXIBOA

**L. Z.** > ELGETA

Hasi dira Asentzio Egunerako prestaketak herrian. Aurten, maiatzaren 20an ospatuko da, eta, urtero legez, Asentzion herri bazkaria egitea da asmoa.

Horrekin batera, herriko umeek hiru dantza eskainiko dituzte: Zazpi Jauzi, Txulalai eta Saint Petit. Bariku arratsaldero batzen dira kiroldegian entseguak egiteko. Aurten, Idoia Elkoro eta Amaia Iribar ari dira umeak prestatzen.

Gaztetxeak, bestalde, baltsa lehiaketan parte hartzeko deia zabaldu du herrian. Lehiaketa Asentzion egingo dute.

**OZKARBI EGUNA, MAIATZAREN 13AN**

Festa eguna prestatzen ari da, aldi berean, Ozkarbi elkarteko zuzendaritza batzordea. Maiatzaren 13an egingo dute aurten Ozkarbi Eguna. Bazkaria egingo dute egun horretan bazkideek elkartean. Bazkaria Manu Sarasuak gertatuko du.

**ESKOLA TXIKIKO FESTA** > EKAINAREN 10EAN, ZUBIETAN

# Maala guraso elkarteak autobusa antolatu gura du

Autobusaren prezioa izenemateen araberakoa izango dela adierazi dute

**L.Z.** > ELGETA

Aurten Zubietan ospatuko dute Eskola Txikiko Festa, ekainaren 10ean.

Urtero bezala, Maala guraso elkartea autobusa antolatzen saiatuko da nahi duenak festa horretan parte har dezan. Eta komeni da lehenbailehen jakitea zenbat lagun dagoen interesatuta Zubietara autobusez joateko. Hori dela-eta, Maala guraso elkarteak eskatzen du izena maiatzaren 9a baino lehenago ematea. Izen-abizenak eta familiako kide kopurua eman behar dira. Datu horiek guraso elkarteak eskola atarian duen postontzira bota behar dira. Zubietan bazkaltzeko aukera ere egongo da. Helduek 15 euro ordainduko dute eta haurrek, 9.

**KAMISETAK SALGAI**

Zubietako Eskola Txikiak kamisetak jarri ditu salgai. Egunotan saldu dituzte Elgetan ere. Eskaera eskolan bertan egin behar da.




> HAUTESKUNDEAK

### Mahaikideen izendapena egin dute maiatzeko hauteskundeetarako

Maria Felipa Vicente izendatu dute Elgetako mahaiko presidente. Ordezkoak Unai Elorriaga eta Nerea Villa dira. Lehenengo bokala Jon Loiti da. Ordezkoak Fernando Sarasua eta Nerea Sarasua dira. Bigarren bokala Joseba Iñaki Txurruka da. Haren ordezkoak, berriz, Josu Arantzabal eta Jon Josu Untzetabarrenetxea.

> FUTBOL DERBIA

### Elgetak Antzuola liderraren zelaian jokatuko du bihar

Aurkari gogorra izango du aurrez aurre bihar, zapatua, Elgeta Futbol Taldeak. Antzuola txapelketako liderra da eta mailaz igotzeko faborito nagusia. Norgehiagoka 16:30ean hasiko da, Estalan, eta partidua gogor lehiatzeko asmoa dutela esan dute Elgetako taldetik. Jarraitzaileen animuak ezinbestekoak izango dituztela ere bai.

> MENDI IRTEERA

### Egokik Udalatxera egingo du mendi irteera domekan, 09:00etan

Bi ibilbide egongo dira aukeran domekarako Egoki Taldeak antolatu duen mendi irteeran. 09:00etarako egin dute hitzordua, Elgetako plazan. Ibilbide motza 3,30 ordukoa da (Kanpanzar, Santa Luzia, Besaide, Udala, Kanpanzar). Ibilbide luzea, berriz, 4,30 ordukoa (Kanpanzar, Santa Luzia, Udalatx, Udala, Kanpanzar).

**ABIADURA HANDIKO TRENA** > UDALA HASI DA BATZARRAK EGITEN

# AHT dela-eta, Ark aholkularitza eta Udala hasi dira lanean

Joan den astean izan zuten batzarra; ur, argindar, telefonia eta errepide kontuak aztertu zituzten, besteak beste

**UBANE MADERA** > ARAMAIO
Udala hasi da Abiadura Handiko Trenak Aramaioko udalerrira ekar ditzakeenak aztertzen. Martxoko osoko bilkuran erabaki zuten Gasteizko Ark aholkularitza kontratatuko zutela lan hori egiteko. Eta, hain justu ere, joan den astean batzarra izan zuten bietako ordezkariek lanean nondik hasi zehazteko. Horrez gainera, aholkularitzako teknikariek trenaren ibilbide osoa ikusten ibili zirela kontatu du Mertxe Mondragon alkateak.

**URA ZIURTATU NAHIAN**
Batzarrari dagokionez, batetik, ur kontuak aztertu zituzten. Besteak beste, Udalak nahi duena da ikerketa egitea ikusteko gaur egun Aramaiok zenbateko ur kopurua hartzen duen iturrietatik. Modu horretan, obrek iturriren bati kalte egiten badiote, Udalaren asmoa da zaintzea ur kopuru hori ez dela gutxitzen, inor ez geratzeko ur barik.

Era berean, aztertuko dute zein aukera duten Aramaio udalerriaren ezkerraldearen eta eskumaldearen ur hodiak elkarrekin lotzeko. Hori eginez gero, ziurtatuko lukete auzo bat bera ere ez geratzea ur barik: "Matxuraren bat gertatzen bada, matxura hori egin duenak konpondu beharko du hura; baina konpondu artean Udalak nahi duena da prest egon ura behar badugu beste nonbaitetik hartzeko", argitu du alkateak.

**PROIEKTU INDIBIDUALAK**
Horrez gainera, ur, argindar eta telefoniarekin lotuta, bakoitzaren gaineko proiektu indibidualak eskatuko dizkio Udalak enpresa eraikitzaileari, zehatz-mehatz ikusi ahal izateko zer den Aramaion egin behar dutena. Errepideekin ere gauza bera egiteko asmoa dute.

**UNTZILLAKO ZABORTEGIA**
Bukatzeko, Untzilla auzoan egin nahi duten zabortegiak zenbait auzotarren artean piztu duen kezka dela-eta, alkateak esan du Udala gertu dagoela kaltetutako lurjabeei laguntzeko, "baina, betiere, jabe guztiek gauza bera babesten badute", eta hori ez da Untzillako auzotarren kasua.

**DATORREN ASTEAN, BERRIRO**
Udalak eta Ark aholkularitzak datorren astean egingo dute hurrengo batzarra.

**UDALA** > HAUTESKUNDEETARAKO ZOZKETA

# Zozkatu dituzte izenak hauteskunde mahaietarako

Bi mahai izango dira; horrenbestez, 1.237 lagunen artean, 18ren izenak atera dituzte

**U.M.** > ARAMAIO
Eguazten eguerdian egin zuten zozketa maiatzaren 27ko hauteskundeetan eskolako bi hauteskunde mahaietan egon beharko dutenen izenak ateratzeko.

Diputazioaren programa informatiko bat erabilita aukeratu zituzten izenok: 1.237 lagunen artean, 18ren izenak, hain justu ere.

**ALEGAZIOAK AURKEZTEKO**
Horiei guztiei bihar, zapatua, baino lehen bidaliko diete jakinarazpena etxera. Hala, euretakoren batek hauteskunde egunean ezingo balu mahaian egon, maiatzaren 12ra arte dauka alegazioak aurkezteko epea, eskualdeko Hauteskunde batzordean. Erantzuna jasoko dute maiatzaren 17a baino lehen.

## Bi mahaietan egongo direnak

- Maria Isabel Babarro (presi.)
- Idoia Biteri (1. ordezkoa)
- Rafael Arana (2. ordezkoa)
- J. A. Ballesteros (1. bokala)
- Kontxi Kortabarria (1. ordez.)
- Pedro Fernandez (2. ordez.)
- Miguel Angel Arana (2. bokala)
- Teresa Fuentes (1. ordez.)
- M. Kontxi Balanzategi (2. ordez.)
- Kristina Rodriguez (presi.)
- Ramon Ormaetxea (1. ordez.)
- Luis Fernando Muñoa (2. ordez.)
- Izaskun Uriarte (1. bokala)
- Francisco Sanchez (1. ordez.)
- M. Carmen Lizarralde (2. ordez.)
- Juan Antonio Perez (2. bokala)
- M. del Carmen Moreno (1. ordez.)
- M. Eularia Martinez (2. ordez.)

ITURRIA: ARAMAIOKO UDALA

**HAUTESKUNDEAK 07** > EA-REN AURKEZPENA

# Zerbitzuak hobetzea da EAren helburua

Maiatzaren 1ean bazkaria egin zuten EAko buruzagi eta bestelako ordezkariekin, Aramaion

**U.M.** > ARAMAIO
Rafa Larreina, Jon Alegria eta Fernando Velasco Eusko Alkartasuneko exekutibako kideak Aramaion izan ziren martitzenean, maiatzaren 1ean, bazkaria egiten. Aramaioko eta Legutianoko EAko hautagaiekin batera egin zuten bazkaria. Bestelakoen artean, EAren ildo nagusiak zeintzuk izango diren zehaztu zituzten.

Herritarrekiko gardentasuna ezinbestekoa ikusten dute EAko hautagaiek; hala adierazi du Andres Osinaga zinegotziak. Hortik aurrera, azpiegiturak eta zerbitzuak hobetzen ahalegin-duko dira: "Azpiegituretako proiektuei bukaera eman (Eguzkierripa) eta berriekin aurrera egin; Arraga auzoko azpiegiturekin, esaterako. Bukatutakoan, zaharkituta geratu diren azpiegiturak berritzen ahaleginduko ginateke (ur hodiak)". Aramaio errekaren saneamendua egiteke dagoela ere gogorarazi du. Eta azpimarratu, oro har, herritarrendako zerbitzuak hobetzen ahaleginduko direla, "guztia hobe daitekeelako".



**HAUTAGAIAK** Bazkaltzeaz gainera, EAko hautagaiek argazkia ateratzeko aprobetxatu zuten. EA

Bi baldintza hauek betetzen badituzu, erraza da lan egiten duzun bitartean "Erizain laguntzaile" titulu ofiziala ateratzea
• Gutxienez 21 urte izatea edo 2 urteko lan esperientzia
• Honako ikasketaren bat gainditurik izatea:
- 2.BBB
- LH1
- IEE
- DBH
Etor zaitez IEFPS ARETXABALETA GLHBIra eta informa zaitez
Izena emateko epea maiatzaren 10ean bukatzen da.
IEFPS Aretxabaleta GLHBI
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Etxebarri auzoa, z/g • 20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa) • Tel.:943 79 79 00 / 943 77 09 55 • E-mail: ia@iaretxabaleta.com • Web orria: www.iaretxabaleta.com

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Lehenengo maila**
Reala-Bartzelona
Zapatua. 20:00. Anoeta.

**Preferente maila**
Mondra-Ondarroako Aurre.
Zapatua. 16:30. Atxabalpe.

Zarautz-Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Asti.

Aretxabaleta-Urola
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Lehen erregionala**
Lagun Onak-Bergara
Domeka. 11:30. Azpeitia.

**Bigarren erregionala. Igoera fasea**
Lazkao-BTLS
Zapatua. 11:00. Arizti Handi.

Antzuola-Elgeta
Zapatua. 16:30. Estala.

**Ohorezko mailako gazteak. Igoera fasea**
Aloña Mendi-Mondra
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

Martutene-Aretxabaleta
Zapatua. 17:30. Donostia.

**Ohorezko mailako gazteak. Kopa eta jaitsiera fasea**
Ondarroako Aur.-Bergara
Zapatua. 17:00. Zaldupe.

**Lehen mailako gazteak. Igoera fasea**
Beasain-Arizmendi Aretx. B
Zapatua. 15:30. Igartza.

**Lehen mailako gazteak. Kopa txapelketa**
Bergara-Arrasate
Zapatua. 16:00. Ipintza.

Antzuola-Zarautz
Domeka. 12:00. Estala.

**Ohorezko mailako kadeteak. Igoera fasea**
Bergara-Touring
Domeka. 11:30. Ipintza.

Arizmendi Aretx.-Lengokoak
Domeka. 11:00. Ibarra

**Kadeteak. Kopa eta jaitsiera fasea**
Arrasate-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Atxabalpe.

Ilintxa-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 11:30. Bikuña.

**Ohorezko infantilak. Txapeldunen fasea**
Tolosa-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 12:00. Usabal.

**Ohorezko infantilak. Kopa eta jaitsiera fasea**
Aloña Mendi-Arrasate
Zapatua. 11:30. Ibarra.

**Infantilen maila**
Amaikak Bat-Bergara
Domeka. 11:00. Deba.

**Infantil txikien Kopa**
Arizmendi Aretx.-Real Union
Zapatua. 11:30. Ibarra.

**Emakumezkoen igoera fasea**
Hernani-Mondra
Domeka. 12:15. Zubipe.

BTLS-Vasconia
Zapatua. 18:15. Ipintza.

**Emakumezkoen Kopa**
Arizmendi Aretx.-Anaitasuna
Zapatua. 11:00. Almen.

**Kadete neskak. F11 txapeldunen fasea**
Lagun Onak-Aloña Mendi
Zapatua. 10:45. Azpeitia.

Arizmendi Aretx.-Touring
Domeka. 11:00. Almen.

**Emakumezko kadeteak. F8 Kopa Txapelketa**
Luberri-Arizmendi-Aretx.
Domeka. 10:30. Berio.

**Alebinak**
Lagun Onak-Arrasate
Domeka. 09:30. Garmendip.

Aloña Mendi-Bergara
Domeka. 10:30. Ibarra.

### ARETO FUTBOLA

**Euskadiko Liga**
Eskoriatza-Frutas Adarra
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

**Lehenengo maila**
Aloña Mendi-Oiartzun
Gaur. 22:30. Zubikoa.

**Hirugarren maila**
UDA Mercedes-Idiazabal
Zapatua. 16:00. Aretxabalet.

**Gazteak**
MCM A-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Donostia.

### SASKIBALOIA

**Lehenengo maila**
Mugarri Alkesa-Valsay Ardoi
Zapatua. 18:00. Arrasate.

**Gipuzkoako ligako senior maila, gizonekoak**
Haurtzaro-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Oiartzun.

Ointxe Arrasate-Cafes Aitona
Zapatua. 16:00. Iturripe.

**Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak**
Cafes Aitona-Eskoriatza
Domeka. 12:00. Donostia.

**Gipuzkoako ligako junior maila, gizonezkoak**
Graficas-Mugarri Alkesa
Domeka. 17:00. Zarautz.

Goierri Verkol-Aloña Mendi
Domeka. 12:15. Urretxu.

**Gipuzkoako ligako junior maila, emakumezkoak**
Eskoriatza-STL Lazkao Txiki
Zapatua. 16:00. Intxaurtxu.

**Gipuzkoako ligako kadete maila, gizonezkoak**
Easo A-Ford Mugarri
Zapatua. 16:00. Donostia.

Easo Basoa-Bergara
Zapatua. 16:00. Donostia.

Aloña Mendi-Atletico SS
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Aldapeta-Eskoriatza
Domeka. 12:00. Donostia.

**Infantilak, gizonezkoak**
Tolosa-Bergara 93
Zapatua. 10:30. Tolosa.

Goierri-Arizmendi B
Zapatua. 10:30. Urretxu.

Ikasi ISB-Arizmendi
Zapatua. 09:30. Azpeitia.

LEK B-LEK A
Zapatua. 12:00. Musakola.

Bergara-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Mariaren L.

**Infantilak, emakumezk.**
Aloña Mendi-Ordizia
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Laskorain-LEK D
Zapatua. 11:00. Tolosa.

BKL D-LEK E
Zapatua. 09:30. Beasain.

Andraitz-LEK B
Zapatua. 09:30. Legazpia.

Ordizia-LEK A
Zapatua. 12:00. Ordizia.

### ESKUBALOIA

**Lehenengo eta bigarren mailako Kopa**
Arrasate-Hegialde Auto
Zapatua. 17:30. Iturripe.

BKL CAF-Arrasate
Domeka. 11:15. Beasain.

Arrate-Ford Mugarri Arrasa.
Domeka. 12:30. Eibar.

**Senior mailako emakumezkoen Kopa**
Verkol Aloña-Lojantzi
Gaur. 20:00. Zubikoa.

**Gazte mailako Kopa, gizonezkoak**
Bergara-Arrate
Domeka. 12:15. Labegaraiet

**Gazte mailako Kopa, emakumezkoak**
Verkol Aloña-Pupo
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**Kadete mailako Kopa, gizonezkoak**
Egia Servi-Aloña Mendi
Zapatua. 19:30. Bidebideta.

Gatz Museoa-Hondarribia
Zapatua. 16:00. Musakola.

### ERRUGBIA

**Euskadiko Kopa**
Arrasate-Hernani
Zapatua. 17:00. Garagartza.




**UDAk puntu bakarra behar du igoera faserako sailkatzeko**
UDA Goiko Leniz taldeak denboraldiko azken partidua jokatuko du Idiazabalen kontra; irabazi edo berdinduz gero, sailkatuta daude.

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# Lider dagoen Zarautzek Aloña Mendi hartuko du bihar (17:00)

Mondrak eta Aretxabaletak etxean jokatuko dute: Ondarroako Aurrera etorriko da Atxabalpera eta azken postuan dagoen Urola Ibarra futbol zelaira



**IAZKO PARTIDUA** Joan den urtean Zarautzen bisitan egindako erretratua. J.A.

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Joan den asteko derbian garaipen polita erdietsita (3-2), Aloña Mendik (39) Preferenteko *oilar* Zarautzen (64) etxera egingo du bisita zapatu arratsaldean (17:00).

Liderra dagoeneko Hirugarren Mailari begira dago, matematikek oraindik ezer baieztatzen ez badute ere, geratzen diren lau jardunaldietan ia ezinezkoa delako Zarautzek helburua ez betetzea. Sinplea da: 12 puntu daude jokoan, eta bigarren postuan dagoen Hernani bederatzi puntura dago. Hori horrela, Aloñarekin batera Zarautzek Mondraren (45) eta UDAren (43) kontra jokatu behar du oraindik.

Oñatiko taldeari dagokionez, Oruetaren mutilek lasaitasunera bidean beste urrats bat egin zuten Aretxabaletaren kontra. Garaipenak, baina, balio erantsia izan zuen, zaleek zapore gozoarekin utzi zuten-eta futbol zelaia.

**MONDRAK ETA UDA-K ETXEAN**

Ordiziaren etxean galduta, Mondrak atzerapausoa egin du laugarren sailkatzeko. Bihar, berriz, atzeko postuak gertu dituen Ondarroako Aurrera (35) izango da Atxabalpen (16:30). Aretxabaletari dagokionez, dagoeneko erregionalean dagoen Urola (21) izango du bisitari domekan Ibarran (16:30). Aretxabaletak bi puntura baino ez du Mondra, eta, lehenago aurreratu moduan, oraindik 12 puntu daude jokoan.



GOIENKARIA

## Hernaniren kontra gura du Arrasatek Kopako lehen garaipena erdietsi

Arrasateko taldeari gura baino gehiago ari zaio kostatzen Kopan lehenengo partidua irabaztea. ART hainbat zailtasun gainditzeko ahaleginetan dabil, hainbat beterano taldera itzultzearekin batera –gogotsu, gainera–, jokalari gazteekin osatzen dabiltzalako hamabostekoa. Gazteak maila polita erakusten dabiltza, eta kategoriara moldatzeko denbora apur bat baino ez dute behar. Hala, bihar (17:00) Hernaniren kontra dute Kopan garaipena estreinatzeko beste aukera bat.

FUTBOLIN TXAPELKETA
Saria: **Mercedes SE 400** edo **5.000 euro** txapeldunarentzat
eta beste horrenbeste tabernarentzat (taberna bakoitzak zazpi jokalari)
BTLS JOKU AUTOMATIKOAK
www.ehmff.com
943 76 42 31 / 652776051
**Antzuola:** Mox – Surpe **Aretxabaleta:** Haizea – Izotz – Kixkor **Arrasate:** Biona – Iturriotz Equs – Udala – Wiskeria **Bergara:** Agirrebeña – Agorrosin – Avenida – Biko – Ganbara Gaztetxea – Mitor **Eskoriatza:** Aldatz – Naira **Oñati:** Arrano – Ongi – Otamendi



**> JIM TNT**
Jim TNT arrasatearra gaur Plateruenan, Howe Gelb-ekin **> 26**



**> LITERATURA**
Literatura Astea Eskoriatzan, Huhezin, maiatzaren 8tik 11ra **> 26**

**> GORKA RUBIALES**
Gorka Rubiales arrasatearrak Musikologia ikasi du, Madrilen lehenbizi eta Austrian jarraian. Orain, Madrilen ari da azken tesina egiten **> 27**



# Elgetako Magia Mostra







**MOSTRA** Raul Alegria (ezkerrean), Luis Manuel (goian, eskuman) eta Roberto Giobbi, Elgetara joango diren ikusleak txunditzen saiatuko diren magoetako batzuk. GOIENKARIA

Elgetako Espaloia Kafe Antzokia 'areto magiko' bilakatuko da domekara bitartean: izen handiko magoak egitarauan

**EDU MENDIBIL** > ELGETA

Aurreko bi edizioetako arrakastari eutsi nahirik, Elgetako III. Magia Mostra hasiko da gaur, egubakoitza, Espaloia Kafe Antzokian. *Areto magiko* bilakatu da Elgetakoa: Mostrako egitarautik kanpo ere izen handiko ilusionistak etorri dira azken hilabeteotan Espaloiara; Rene Lavand eta Anthony Blake tartean. Gaur gauean, Mostraren teloia altxatuko da berriz ere Elgetan. Roberto Giobbi suitzarrak emango dio hasiera egitarauari. Munduko kartomagorik onenetakoa da Giobbi, eta ikusleak txunditzen saiatuko da.

**MAGIA GALA ZAPATUAN**

Lehen bi edizioetako eskema berari jarraituz, bihar, zapatua, Magia Gala izango da. Murphy, Raul Alegria, Nacho Diago, Luis Manuel eta Yunke izango dira taula gainean. *Shalakabula* telebista saioagatik ezaguna, Murphyk aurkezpen lanak egingo ditu baita. Raul Alegriak magia klasikoa egiten du –era berean, Ainhoa Artetarekin *La Bohème* opera egiten ari da orain–, Nacho Diago Espainiako Magia Kongresoan lehen saria eskuratutakoa da, Luis Manuelek bi gitarrista flamenkoren laguntzaz egingo ditu karta trukuak eta Yunkek ikuskizun bisuala eskainiko du, indar handikoa. Domekan, Arabako ilusionismo elkartearen eskutik magia kalera iritsiko da. Adi, horrenbestez, magoekin ez dago sekula fidatzerik-eta…

## Egitaraua

**Maiatzak 4, egubakoitza**
22:30 Magia ikuskizuna, Roberto Giobbirekin.

**Maiatzak 5, zapatua**
22:30 Magia Gala: Murphy, Raul Alegria, Nacho Diago, Luis Manuel eta Yunke.

**Maiatzak 6, domeka**
13:00 Magia kalean.

MUSIKA > KONTZERTUA PLATERUENAN

# Howe Gelb musikari handiak Jim TNT izango du agertokian lagun

Jim TNT bakarlari arrasatearrak irabazi zuen Danbakako bakarlari onenaren saria; haren sarietako bat da gaur Plateruenan aritzea

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Jim TNT izen artistikoaren atzean Jaime Lizarantzu musikari arrasatearra dago. Los Cretinos rock-and-roll taldeko abeslari eta gitarra jotzailea izateaz gain, askotan bakarka aritzen da gitarra eta armonika alboan dituela.

Danbaka Debagoieneko II. Musika Lehiaketan bakarlari onenaren saria eskuratu zuen Jim TNTk. Hala, horren truke, 2007ko Azkena Rock jaialdia ikusteko bi lagunendako txartela eta hoteleko egonaldia jaso zituen. Horrez gainera, Danbakako antolatzaileek konpromisoa hartu zuten bakarlari arrasatearrari emanaldi gehiago lortzeko; horien artean, gaurkoa.

**GIANT SANDEN SORTZAILEA**

Gaur, egubakoitza, izango da hitzordua Durangoko Plateruena Kafe Antzokian, 22:00etan. Jim TNT arrasatearrak hasiko du kontzertua. Pop-rock, folk eta rock-and-roll doinuak landuko ditu.

Horren ostean, Howe Gelb & 'Sno Angel taldea arituko da. Talde hori da Arizonako (AEB) Howe Gelb musikari handiaren proiektu berria. Gelb oso ezagun egin zen 90eko hamarkadan Giant Sand taldearekin. Neil Youngen irakaspenak aintzat hartuta, country eta rock doinuak landu zituzten intentsitate bereziarekin. Horren ostean, taldekideetako batzuek Calexico taldea sortu zuten; eta Gelbek bakarka jarraitu zuen.

Gaur egun gidatzen duen proiektuan, gospel abesbatza bat dauka alboan; eta iraganeko eta gaur egungo abestiei beste giro eta sonoritate bat ematen die, folk eta countrytik haratago.



GOSPEL ABESBATZAREKIN Argazkian Howe Gelb & 'Sno Angel abesbatza agertoki gainean. GOIENKARIA




AURKEZPENA Perez, Zabalondo eta Otamendi, atzo. ARRITXU BARRUSO

LITERATURA > HUZEZI FAKULTATEA

# Literatura Astea martitzenetik aurrera Huhezin

'Literatura, itzulpegintza eta ikuskizunak' izenburupean, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Eskoriatzan maiatzaren 8tik 11ra

E.M. > ESKORIATZA

*Literatura, itzulpengintza eta ikuskizunak* izenburua izango du aurten Eskoriatzako Huhezi fakultatean egingo duten Literatura Asteak. Maiatzaren 8tik 11ra bitartean izango diren ekitaldien berri eman zuten atzo, eguena, prentsaurrekoan. Maider Otamendi Eskoriatzako Udaleko zinegotziak, Karmele Perez Hizkuntza departamentuko ordezkariak, eta antolaketa lanetan ibili den Beatriz Zabalondo Huheziko irakasleak aurkeztu zuten Literatura Astearen 11. ekitaldia.

Martitzenean, maiatzaren 8an, Xabier Paya bertsolariak aurkeztutako saio esperimentala izango da, 15:00etan. *Bertsoak itzul daitezke?* izenburupean, Andoni Egaña eta Onintza Enbeitarekin bertso-itzulpen jolasetan arituko da Bizkaiko bertso txapelduna.

**PATXI ZUBIZARRETA, IKASLEEKIN**

Patxi Zubizarreta idazle eta itzultzaileak aurkeztutako saioa izango da eguaztenean, hilaren 9an. *Itzulpenaren erotika: ispilua eta larrua* hitzaldi antzeztua egingo du Zubizarretak ikasleen laguntzarekin, 11:30ean. Antzerkiaren txanda iritsiko da eguenean, Txalo konpainiaren eskutik. *Artea* antzezlana izango da, 19:30ean. Ramon Agirre, Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza dira antzezleak.

Bukatzeko, maiatzaren 11n Ikasleen Eguna ospatuko dute. Beñat Zamalloak aurkeztuta, *Ai Humbert, Humbert* Asier Arriagaren poesia emanaldia izango da goizean, 11:30ean.



**Gorka Rubiales** > Musikologoa

# "Vienako opera eskaintza izugarria da; bi euro balio du opera entzuteak"

Gorka Rubiales arrasatearrak Musikologia ikasi du; Madrilen egin zituen lehenengo urteak, eta gero, Erasmus beka bidez Vienara joan zen karrera amaitzera. Musikologia amaitutakoan, ikasketekin jarraitu zuen Innsbrucken (Austria), Ikonografia Musikala ikasten. Orain, Madrilen ari da azken tesina egiten. Gainera, hari musikaleko kate batean egiten du lan.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Maiatzaren 1eko zubia aprobetxatuz, Gorka Rubiales arrasatearra etxera itzuli da. Eta guk tartetxoa hartu dugu harekin hitz egiteko. Musikan egiten ari den lanaz eta Austrian bizi izan duen esperientziaz jardun dugu.**



**Musikologia ikasten ari zara Madrilen. Baina zer da musikologia?**

Artearen historia bezala da, baina musikaren esparruan. Hau da, musikaren historia eta zientzia da; guk musika aztertzen dugu. Musika kantatu edo jotzen ikastea baino gehiago, musika aztertzea da gure lana, teoria lantzen dugu.

Musikaren teoria eta azterketa da; musikaren historia, analisia eta, baita, musika jendeak nola jasotzen duen aztertzen dugu. Alderdi asko lantzen dituen ikasketa da musikologia.

**Karrera Vienan amaitu zenuen eta orain tesinarekin ari zara.**

Bai, karrerako azkeneko urtean, Erasmus bekarekin Vienara joateko aukera izan nuen; karrera han bukatu nuen. Nik, baina, ikasketekin jarraitu gura nuen; eta, hango tutorearen bidez, Innsbrucken (Austria) bizi den irakasle baten helbidea lortu nuen. Hark ikonografia musikalean egiten du lan; hau da, ikonografia musikala arte eta margolanetan dagoen musika aztertzea da.

Nire tesina El Boscoren margoen ingurukoa da. El Boscoren margoetan dagoen musika aztertzen dut; zergatik dagoen musika hori eta ze esanahi daukan aztertzen dut. Ikonografia hori gehienetan ez da hutsetik sortzen. Modelo batzuk egoten dira eta modelo horiek kopiatu egiten dira; askotan, koadroetan gauza berriak sartzen dira eta beste askotan, dagoenetan sartzen dira modeloak. Adibidez, orain mural bat margotu beharko bagenu musika adierazteko, ez genituzke XVI. mendeko instrumentuak sartuko. Orain, lagun bat gitarra elektriko bat jotzen sartzea izango litzateke egokiena.

Beraz, gure lana ez da koadroa bakarrik aztertzea, baita ere tradizio hori nondik datorren.

**Beraz, artearen historia ere menderatu beharko duzu.**

Bai, koadroak noiz egin diren eta zein testuingurutan; hau da, historia ere asko sartzen da. Eta gero, musikalki ze esanahi daukan; agertzen den instrumentua benetakoa den edo ez, beste ze instrumenturekin jotzen den…

Koadro guztiek ez dute musika. Koadro batek musika izateko, ez du zertan instrumentu bat margotuta eduki. Izan daiteke instrumentu bat edo dantza bat… edo erritmo berezi bat. Ez dauka zertan esplizitua izan, inplizitua ere izan daiteke.

**Musikan, Vienak aukera asko emango ditu.**

Bai, egia esan, Vienak aukera izugarriak ematen ditu. Urteberriko kontzertuan ez naiz egon; izan ere, Gabon guztietan etxera etorri izan naiz.

Operan, esate baterako, Viena eta Milan dira erreferente nagusiak munduan; Vienan opera baterako sarrerak bi euro balio du. Beraz, aukera izugarria dago opera entzuteko. Hemen, operako iragarkiak egunkarietako finantza sailean agertzen dira; atera kontuak, zein jende motari dagoen zuzenduta opera gurean.

**Madrilen, hari musikaleko kate batean ari zara lanean. Zein da zure lana?**

Gure lana musika entzun eta aukeratzea da. 20 kanal ditugu; gure lana kanal horiek eguneratzea izaten da. Diskoak digitalizatu eta kanalean sartzen ditut abestiak. Bi kanal mota daude: IP eta Broadcast. IPn nik abestiak sartzen ditut eta gero bezeroak nahi duen ordenan jartzen ditu. Bestean, berriz, nik aukeratzen ditut abestiak zein ordenatan jarri; jakina, horrek aukera gehiago ematen ditu graduazioak egiteko.

**Eta zure gustuko musika entzuterakoan, diskoak erosi edo Internetetik hartzen dituzu?**

Orain arte, bai erosi eta bai Internetetik hartu izan ditut. Baina gaur egun, egunero zortzi ordu ematen ditut lanean musika entzuten, eta, egia esan, etxera iristean ez dut musika entzuteko batere gogorik izaten.

**Viena, Madril eta Bilbo artean, ze hirik dauka musika eskaintza hobea?**

Musikaren arabera eta momentuaren arabera. Ni Bilbon orain dela zazpi urte egon nintzen eta garai hartako Bilbok eta oraingoak ez daukate zerikusirik. Musika klasikoan, Viena, zalantzarik gabe. Musika modernoan edo rockean, berriz, Bilbok eskaintza hobea dauka.







GOIENKARIA

## PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 29 urte. **Ikasketak?** Musika Irakasle ikasketak eta Musikologia. **Zaletasunak?** Musika, zinema eta irakurtzea. **Baduzu maniarik?** Bai, asko ditut, larregi agian. **Zein da zure bizitzako leloa?** Presarik gabe baina etenaldirik gabe egitea bizitzako eginbeharrak. **Inoiz egin duzun bidaia gustukoena?** Bi bidaia ditut: batetik, Berlinera egin nuena. Oso hiri bizia dela iruditu zitzaidan. Bestea, Praga: izugarri polita da. **Amets bat?** Orain egiten ari naizen tesina bukatzea eta lanean jarraitzea.

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

**Bergara:**
- Ibargarai 74 $m^2$. Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua.
- Masterreka 92 $m^2$. Ondo.
- Osintxu 80 $m^2$. Berritua.
- Angiozar. Bi solairu. Berritzeko.
- San Pedro 110 $m^2$. Estreinatzeko.
- Zabalotegi 50 $m^2$. Oso ondo.
- San Pedro 65 $m^2$. Prezio ona.
- Aranerreka 87$m^2$. Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 $m^2$ Ondo.
- Zubieta 60 $m^2$. Prezio ona.
- Ortuibar 97 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 95 $m^2$. Prezio ona.
- Zubiaurre 60 $m^2$. Berritua.

**Elgeta:**
- Etxebizitza berrien erainkuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajea, terraza. Bista politak.
- San Roke 90 $m^2$. Berritua.
- Salbador 90 $m^2$. Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- Masterreka 170 $m^2$ duplexa, ondo
- Simon Arrieta, 84 $m^2$, berritzeko
- Matxiategi 80 $m^2$, ondo
- Iparragirre,190 $m^2$, berritzeko
- Iraburu, 84 $m^2$, ondo
- Martoko,45 $m^2$, ondo
- Aranerreka, 90 $m^2$, oso ondo
- Artekale, 74 $m^2$
- Ibargarai, 118 $m^2$, oso ondo
- Angiozar, berritzeko
- Fraiskozuri, 102 $m^2$, oso eguzkitsua
- Bidekurutzeta, 60 $m^2$, berritua
- Zubiaurre, 60 $m^2$, aukera ona
- Koldo Eleizalde,107 $m^2$, igogailua.
- Paseo Irizar 89 $m^2$, garajearekin.
- San Lorentzo 18 etxebizitza berri garaje eta trastelekuarekin.

**SORALUZE**
- Gabolatz, 65 $m^2$, oso ondo
- Atxuri, 93 $m^2$, oso ondo.

**ANTZUOLA**
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, erdi berritua.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

## 943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.
PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

g(S) goisolutions

**Interneteko komunikazio eta marketin enpresak WEB DISEINATZAILEA behar du, Debagoienean.**

Pertsona hautatuak webguneetarako proiektuen maketazioa eta diseinu grafikoa egin beharko ditu, eta erabiltzailean oinarritutako sorkuntza interaktiboak diseinatu beharko ditu.

**Kontuan hartuko dira:**
- Diseinuan eta web aplikazioetan esperientzia izatea
- Programa hauek erabiltzen jakitea: Photoshop, Freehand, Dreamweaver….
- Web teknologiak menderatzea: HTML, CSS, JavaScript
- Debagoienean bizi izatea

**Eskaintzen da** lehenbailehen lanean hastea eta hedatzen ari den enpresa horretan lan egonkorra izatea.

Interesatuok bidali currriculuma posta elektroniko honetara:
*info@goisolutions.net*

Alfa INMOBILIARIA HIPOTECAS
Parrokia ondoan
Tel.: 943 77 19 19 / 677 49 89 89

**ARRASATE**
- Erguin: 2 logela, sukaldea, egongela, bainua eta berogailua. 30.000.000 pta.
- Santa Teresa. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainua. 30.000.000 pta.
- Uribe Auzoa. 3 logela, sukaldea eta bainugela. 38.000.000 negoziagarriak.
- Uribe Auzoa. 4 logela, sukaldea, egongela eta bainua. Berehala joateko. 53.500.000 pta.
- Makatzena. 72 $m^2$. Berritzeko.
- Erguin. 65 $m^2$. Oso ondo.
- Zentroan. 115 $m^2$. Garajea. Arrasateko tokirik hoberenean. Bista ezin hobeak.

**ARETXABALETA**
- Markole. 99 $m^2$. Bi trasteleku eta garajea.
- Etxe bakarra, 140 $m^2$. 400 $m^2$-ko lursaila. Garajea.
- Estrenaitzeko etxebizitza. 3 logela, 2 bainu, egongela, sukaldea, ganbara eta garajea. 49.000.000 pta.
- Portasol. 85 $m^2$. Berritua. Prezio ona.

**www.alfamondragon.com orrialdean 7.000 etxebizitza baino gehiago aukeran**

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Etxebizitza salgai, adosatua. Estreinatzeko. 607790037.

**Arrasate.** Arimazubin etxea salgai. Egoera onean dago. Bi logela, egongela, komuna, sukaldea eta ganbara. Kanpoaldera begira dago. Telefonoa: 657 77 81 87.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Uribe auzoan. Lau logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Garajea aukeran. Telefonoa:625 28 72 06.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. San Andresen. 57 m2. Guztiz berrituta. Bi logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Kanpoaldera begira. Igogailua eta sotoarekin. 620 15 12 12.

**Arrasate.** Zigorrolan. Hiru logela, egongela, bainua, sukaldea, trastelekua eta hiru balkoi. Oso eguzkitsua. Telefonoa: 652 73 22 83.

**Bergara.** Apartamentua salgai Zubietan. Eguzkitsua. 656 78 06 95.

**Bergara.** Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua, altzariekin. Bizi izatera sartzeko gertu. Prezio interesgarria. Telefonoa:628 26 65 77.

**Bergara.** Simon Arrietan etxebizitza salgai. 80 metro koadro. Dena kanpo alder. Egoera onean. 652 76 86 68.

**Bergara.** Zabalotegin. 50 metro karratu ditu eta 14 metro karratuko trastelekua. Erabat berritua. 635 72 67 11.

**Biarritz.** 90 metroko apartamentua salgai. 3 logela, komuna, bainua, dutxa, sukaldea, bi balkoi eta egongela handia. Hondartzatik 10 minutura oinez. Telefonoa: 646 69 47 99.

**Elgeta.** Etxebizitza salgai, bigarren solairuan. Igogailua, 3 gela, sukaldea, komuna, egongela eta ganbara. 138.232 euro. 645 71 76 25.

**Miarritz.** Etxebizitza salgai, 90m2. Hondartzatik oinez 10 minutura. Telefonoa:646 69 47 99.

**Oñati.** Apartamentua salgai San Lorentzo auzoan. Saloi-sukaldea eta bi logela. Eguzkitsua, terraza handiarekin. Garajea aukeran. Telefonoa:658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

**Oñati.** Ugarkalden 1. eskuko pisuak salgai: 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta terraza handiak. oso eguzkitzuak. Telefonoa: 649 44 60 92.

**Oñati.** Ugarkalden lehen eskuko etxebizitzak salgai: 100 m2. Oso eguzkitsuak. Sukaldea guztiz jantzita eta etxea norberaren gustura egiteko aukera. 649 44 60 92.

**Yamaha WR250** motorra salgai, 2001 urtekoa, 3.000km eta egoera oso onean. 3.000euro. 635 71 67 06.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Cadiz.** Conilen, Bateles hondartzaren ondoan, apartamentua ematen dut errentan. 680 44 26 68.

**Hendaia.** Apartamentua errentan uztailean. Toki lasaian dago, terraza eta parkingarekin. 600 euro. Telefonoa: 677 65 39 34.

**Hendaia.** Urbanizazio batean dagoen apartamentu bat errentan ematen da. Urbanizazioak igerilekua dauka eta apartamentua egokitu berria da. Parking partikularra. Lau lagunendako edo familia batentzako egokia. Inaxio. 670 41 08 58.

**Jaca.** Etxe bat errentan ematen da maiatzetik azarora. Urbanizazioa, tenis pista eta igerilekua dauzka. Telefonoa: 665 73 95 65.

BERGARA
**Depor tabernak zerbitzaria behar du.
629 26 88 51**

**La Barrosa-Chiclana** (Cadiz). Apartamentua errentan ematen da urbanizazio berri batean. Leku zoragarria. La Barrosa hondartzatik oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**La Pineda (Salou).** Apartamentua errentan ematen dut. Berritua. Igerilekuarekin. Telefonoa: 943 79 79 28.

**Peñiscola.** Apartamentua errentan udan. Hondartzatik gertu. Igerilekuarekin eta aparkaleku pribatuarekin. 610 87 83 57.

**Salou.** Apartamentua ematen dut errentan Jaime I.a pasealekuan, Novelty eraikinean. Erabat jantzita eta aire giroturekin. 629 98 98 99.

**Torrevieja.** Apartamentua, hondartzatik 100 metrora. Bi logela eta egongela-jangela ditu. 943 77 03 85.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaletan.** Bi neskak etxebizitza errentan hartuko lukete. 610 82 02 17.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 665 73 17 66.

ARETXABALETA
**Jatetxe batek esperientziadun zerbitzaria behar du.
679 45 57 75**

**Debagoiena.** Bikote batek etxebizitza errentan hartuko luke. 606 92 59 33.

**Debagoiena.** Etxebizitza hartuko nuke errentan Debagoieneko herri baten. Telefonoa: 638 43 80 27.

**Eskoriatza.** 2007-2008 ikasturterako lau logelako etxebizitza hartuko nuke errentan, berogailuarekin. Deitu 12:00etatik aurrera. Telefonoa: 619 16 12 55.

### 106. BESTELAKOAK

**Gasteiz** Gorbeia kalean logela bat errentan ematen da. 300â,¬. 652 72 18 87.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia alokagai Uarkapen. 605 77 59 03.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Zubiaurren. 37 metro koadro. 606 65 97 82.

BERGARA
**Etxebizitza salgai Tokiederren. Eguzkitsua. Egoera onean.
607 27 20 23**

## 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Lokala errentan hartuko nuke. 660 43 71 94.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Elgeta.** Pertsona euskalduna behar da arratsaldez (18:30-20:30) hamar hilabeteko umea zaintzeko. 633 83 85 32.

**Oñati.** Emakume euskalduna behar da arratsalde batzuetan bi ume zaintzeko eta astean behin etxeko lanak egiteko. 638 37 91 89.

### 402. ESKAERAK

**Adineko pertsonak zaintzeko** emakumea gertu. Telefonoa: 662 26 72 65.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egingo nituzte orduka zein jardun osoz. 618 93 59 29.

**Debagoiena.** Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. 943 71 21 13 edo 676 23 41 13.

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. 943 79 76 88 edo 666 21 88 95.

**Debagoiena.** Neska bat gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko edo garbiketak egiteko. Telefonoa:646 75 08 07.

**Debagoiena.** Neska bat gertu pertsona nagusiak zaintzeko, sukaldari laguntzaile edota zerbitzari moduan lan egiteko edo garbiketak egiteko. 662 26 67 25.

**Debagoiena.** Neska bat gertu pertsona nagusiak zaintzeko, sukaldari laguntzaile edota zerbitzari moduan lan egiteko edo garbiketak egiteko. 663 46 93 60.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** DBH2ko ikasle batek eskola partikularrak jasoko lituzke, ahal bezain laster. 943 79 89 96.

**Bergara.** First titulua duen irakaslea behar dut astean hiru orduz eskolak eman diezazkidan. 943 03 73 39.

**Web orrialdeen** programazioko klaseak jasoko nituzke. Linux-en oinarritutako oinarrizko maila. Olaia. Telefonoa: 649 17 48 27.

ULMA Packaging

**ULMA Packaging-ek, ontziratze sistema eta makinen eskaintzaren bitartez merkatuari konponbide berritzaileak hornitzen liderra, lanean hasteko behar du:**

**INGENIARI TEKNIKOAK ETA GOI MAILAKOAK**
(Espezialitatea: elektronika)

**Eskatzen da:** **erref.: 04/07**
- Industria automatizazio ezagutzak.
- 2-3 urteko eskarmentua.
- PLC eta PC sistemak programatzen jakitea (C eta Visual Basic hizkuntzak).
- Ingelesez jakitea; beste hizkuntza batzuen ezagutza ere baloratuko da.
- Ekimena eta taldean lan egiteko zein harremanetarako gaitasuna izatea.
- Bezeroen instalazioetan laguntza teknikoa ematea, bertara joanda.

**MUNTATZAILEA**

**erref.: 06/07**
**Eskatzen da:**
- Mekanikan eta Elektronikan/Elektrizitatean ezagutza
- (Goi Mailako Heziketa Zikloa) Iniziatiba izatea eta harremanetarako eta taldean lan egiteko gaitasuna izatea
- Bezeroari zerbitzu teknikoa eman behar zaionean, bere instalazioetara joateko prestutasuna
- Ingelesa ezagutzea baloratuko da

**INGENIARI TEKNIKOAK ETA GOI MAILAKOAK**
(Espezialitatea: mekanika)

**Eskatzen da:** **erref.: 05/07**
- Makinen diseinu mekanikoen ezagutza.
- 2-3 urteko eskarmentua.
- Diseinu tresnak: Autocad, Solid Edge eta Microstation.
- Ingelesez jakitea; beste hizkuntza batzuen ezagutza ere baloratuko da.
- Ekimena eta taldean lan egiteko zein harremanetarako gaitasuna izatea.
- Bezeroen instalazioetan laguntza teknikoa ematea, bertara joanda.

**Interesatuok bidali curriculuma honako helbidera:
ULMA Packaging-eko GGBBetako Departamentua Garibai auzoa 28 • 145 posta-kutxa • 0560 OÑATI
Gutun-azalean lanpostuaren erreferentzia adierazi.**

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Alfa Romeo** 156 SW. Gasolinazkoa. 2004koa. 48.000 km. 645 00 99 35.

**Karabana** salgai, Burstner markakoa. 2002koa. Bost plaza. Oso ondo zaindua. Truma berogailua, Alko estabilizatzailea, Electrolux hozkailua eta abantzea. Deitu telefono honetara: 647 27 31 40.

**Karabana** Burstner 5 plaza 2002koa, oso ondo zaindua. Abanzea. Deitu telefono honetara: 647 27 31 40.

**Megane** Luxe Dinamique salgai, oso egoera onean. 1.9 Dti, 120 ZP, 2005ekoa, 40.000 kilometro. 13.300 euro. Telefonoa:652 75 54 46.

**Mobilette** GAC 49 cc salgai. Matrikulatuta dago. Oso egoera onean dago.

**Monobolumena** salgai, Seat Alhambra Sport 130cv, egoera onean, 43000km ta 2004 urtekoa. Deitu telefono honetara: 653 71 04 56.

**Peugeot Eliseo** scooterra salgai. 45 zentimetro kubiko. Egoera onean. Merke: 400 euro. Deitu telefono honetara: 657 73 93 82.

**Peugeot Eliseo** scooterra salgai. 45 zentimetro kubiko. Egoera onean. Merke: 400 euro. Deitu telefono honetara: 657 73 93 82.

**Suzuki GS 500E** motoa salgai. 25.000 km eta egoera oso ona. 1.800 euro. Telefono honetara deitu: 669 97 93 48.

## 7/ ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Katakumeak.** Hiru katakume eta haien ama oparitzen ditut. Zuri-zuriak dira katakumeak. Deitu telefono honetara: 649 57 70 59.

### 704. BESTELAKOAK

**Txakurra.** Golden Retriever txakurra galdu da Garagartzan. “Oso” du izena, 7 hilabete ditu eta tamaina ertaina, ile horiduna. Eskertuko da. Deitu telefono honetara: 943 79 61 14.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Autorako** DVDa eta pantaila salgai. Deitu telefono honetara: 656 70 23 12.

**Bizikleta** salgai, aluminiozko Moser kuadroarekin,(55-56 neurriko), eta Shimano Ultegrarekin osatua.500euro. 943 78 07 10.

**Emaztegai soinekoa** saltzen da, estreinatu barik. Neurria: 40. Zuria berdearekin. Modernoa. 800 euro. Telefonoa: 652 75 54 46.

**Trialeko bizikleta.** Monty 221 Ti. 2004koa. Egoera onean. Lehen 1.300 euro, orain 550 euro. Markel. Telefonoa: 943 79 41 88.

**Txakurrentzako** erremolkea saltzen da. Oso egoera onean. Jon. Deitu telefono honetara: 618 72 68 34.

**Ume-kotxea.** Bikiendako umekotxe tolesgarria, Maclaren Twin Traveller. Udarako, aulkiondako bi estalki eta negurako bina Red Castle forru polar eta zaku, eguzkitakoarekin. Deitu telefono honetara: 676 83 25 62.

**Windsurf ekipamendua.** 6,6 m2-ko hiru bela, Gaastra Echo motakoak. 6 m2-ko Arrow Air motako bela bat eta 5,5 m2-ko Triboard bela. Gainera, bi masta 460 cm eta 400 cm-koak, eta ezpeleta (botavara). Dena 499 euro. Deitu eta ikusi. Mikel. Deitu telefono honetara: 677 78 31 56.

**Windsurf ekipamendua.** Bic Rumba taula + 99 litroko Bic Veloce taula opari + estrak. Dena 275 euro. Deitu eta ikusi. Mikel. Deitu telefono honetara: 677 78 31 56.

### 808. BESTELAKOAK

**Arrasate.** Aldapan dagoen lur saila eguzkitsua errentan ematen da. Gernika pasealekuko zubitik gertu. Gaueko 10etatik 11etara deitu mesedez. Deitu telefono honetara: 656 75 52 28.

## hildakoak

- **Maria Asuncion Macho Berroia.** Bergaran, apirilaren 27an. 66 urte.
- **Amelia Garrote Marino.** Arrasaten, apirilaren 29an. 90 urte.
- **Enrike Etxeberria Zubeldia.** Arrasaten, apirilaren 30ean. 69 urte.
- **Miguel Tercero Nova.** Arrasaten, apirilaren 30ean. 84 urte.
- **Felix Urtzelai Ondona.** Arrasaten, apirilaren 30ean. 75 urte.
- **Sabino Gallastegi Askasibar.** Elgetan, maiatzaren 2an. 73 urte.
- **Mª Angeles Etxeberria Arriolabengoa.** Aretxabaletan, 2an. 71 urte.



**Jose Luis Arantzabal Ezenarro** eta **Eskerne Ezpeleta Urbina** bergararrak 1957ko maiatzaren 3an ezkondu ziren. 50 urteren ostean, urrezko ezteiak bazkari batekin ospatuko dituzte. Zorionak, familiakoen partetik.



**Jon Murgiondo** eta **Nerea Kortabarria** maiatzaren 5ean ezkonduko dira, Untzillako elizan. Bazkaria Zelai-Zabal jatetxean egingo dute. Ezteibidaian Argentinara joango dira. Zorionak, bikote.

URTEURRENA

### Fausta Fernandez de Jauregi Peciña

Doroteo Barandiaranen alarguna

Lehen urteurreneko meza
eguenean, maiatzaren 10ean,
19:00etan, Arrasateko
San Juan Bataiatzailearen elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



**Bixente Uribesalgo** eta **Encarna Garitano** bergararrak 1957ko maiatzaren 4an ezkondu ziren Santa Marinan. Urrezko ezteiak ospatzeko maiatzaren 12an bazkaria egingo dute Lasa jatetxean. Anai-arreben, seme-alaben eta iloben partetik, zorionak.



**David Bañares** eta **Mireia de la Torre** eskoriatzarrak maiatzaren 5ean ezkonduko dira Eskoriatzako elizan. Bazkaria Gure Ametsa jatetxean egingo dute eta bidaian Thailandiara joango dira. Ondo ibili eta zorionak, familiakoen eta lagunen partetik.

ESKER ONA

### Ramon Guridi Irazola

Donostian hil zen 2007ko apirilaren 21ean, 72 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2007ko maiatzaren 4an.

URTEURRENA

### Tomas Laskurain Zabaleta



Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 6an,
11:00etan,
Antzuolako Errukizko Amaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEZA

### Pantxika Arrue Jaka

Patxi Imazen alarguna

Donostian hil zen 2006ko maiatzaren 26an, 88 urte zituela.



*Meza izango da Santa Marina parrokian,
maiatzaren 6an, domekan, 11:00etan.
Aldez aurretik, mila esker.*

Bergaran, 2007ko maiatzaren 4an.

ESKER ONA

### Jose Gantxegi Telleria

'Euzki'
Adoración Gallastegiren alarguna

Bergaran hil zen 2007ko apirilaren 23an, 87 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2007ko maiatzaren 4an.

URTEURRENA

### Joseba Bengoa Eraña



Lehen urteurreneko meza
eguenean, maiatzaren 3an,
izan zen.
*Familiak beti gogoratuko zaitu.*

Elizkizunetara joango zaretenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

III. URTEURRENA

### Jesus Larrañaga Lizarralde



Hirugarren urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 6an,
12:30ean, Arrasateko
San Juan Bataiatzailearen elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

### Felix Urzelai Ondona

Arrasaten hil zen 2007ko apirilaren 30ean, 65 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2007ko maiatzaren 4an.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta astelehenneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.**



Babeslea:

OROILORE
Hileta eta beilatoki zerbitzuak

*Momentu txar horietan sortzen diren
galdera, kezka eta arazo guztiei
aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da*

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76

## berriak

> GOITB

### Erreportaje saio berria ikusgai Goiena Telebistan

Datorren astelehenean, hilaren 7an, izango da estreinaldia. GOITBk erreportaje saio berria eskainiko du hemendik aurrera. Saioaren izena *2x2* da, Tolosaldeko 28 Kanalak ekoiztutakoa. Hain zuzen ere, programa bakoitzean bi erreportaje ikusi ahal izango dira. Aste honetan, batetik Gorrotxategi museoa eta bestetik, Adunan, harriak miniaturan zelan egiten diren ikusiko dugu.

> GOITB

### Bakarlarien bideoklipak 'Musikantoi' saioan

Jakin badakizue *Musikantoi* musika taldeen bideoklipak eskaintzen dituen saioa dela. Bada, datorren astean saioa berezia izango da, bakarlarien lanak ikusi ahal izango baitituzue. Beraz, GOITBn izango duzue musikaz eta bakarlari bikainez gozatzeko aukera. Bertan ikusiko dituzuen bakarlariak honako hauek dira: Ruper Ordorika, Raul Lasa, Azkaiter-Pelox eta Izas, besteak beste.

> ARRASATE IRRATIA

### Elena Odriozola ilustratzailea 'Asteko Gainbegiratua'-n

Eguaztenean hasi zuen 107.7ko autobusak lan astea, eta, besteak beste, Elena Odriozola ilustratzailea izan zen gurean. Odriozolak Kulturaten duen erakusketan gidari lanak egin zizkigun eta baita ilustratzaile ogibidearen gainean jardun ere. Asteburuan berreskuratuko dugu elkarrizketa hori.

Horrez gain, zinema proposamenak ere izango dituzue aste bukaerako bilduman.

> ARRASATE IRRATIA

### Kantu eskari eta eskaintza azken geltokian

Eguerdiko hamabietan amaitzen du 107.7ko autobusak egunerokо ibilbidea. Baina bi orduko bidaia hori arratsaldez jarraitzeko aukera ere baduzue, 14:00etan hasita.

Aurrerantzean, bada, entzuleei eman nahi diegu saioa amaitzeko giltza. Hona hemen proposamena: gustuko kantua aukeratu eta egin eskaria 943 71 17 31 telefonora deituta edo *irratia@goiena.com* helbidera idatzita. Animatu eta parte hartu!

**'HARMAILATIK'>** > ASTELEHENA, 21:15

# Arantzazu Ezkibel oñatiarrak aurkeztuko du 'Harmailatik'

Julen Iriondoren ordez Arantzazu Ezkibel izango da aurkezlea maiatzaren 14tik aurrera

GOIENKARIA > ARRASATE

*Harmailatik* kirol saioan aldaketak izango ditugu aurki. Izan ere, orain arte aurkezle lanetan aritu den Julen Iriondok utzi egingo dio *Harmailatik* zuzentzeari. Esan bezala, Arantzazu Ezkibel oñatiarrak helduko dio *Harmailatik* saioari maiatzaren 14an eta hura izango da asteburuko kirol partiduen laburpenak eskaintzen dituen saioan ikusiko duzuen aurpegia. Arantzazu Ezkibel *Asteleheneko Goienkaria*-ko kazetaria da, eta, esan bezala, *Harmailatik* ere aurkeztuko du.



ARANTZAZU EZKIBEL Kazetari oñatiarra da saioko aurkezle berria. GOIENKARIA

**'BERBAIRE'** > SAIO BEREZIA

## Goieskolako mahai inguruaren gaineko saioa egingo du 'Berbaire'-k

GOIENKARIA >ARRASATE

Gorka Etxabek zuzentzen duen saioak emankizun berezia egingo du datorren astean. Izan ere, Goieskolako mahai inguruaren gaineko saioa izango da. Saio berezi hori eguztenean, hilak 9, emitituko dugu, 21:47an. Goieskolako mahai inguruaren gaineko saioan jende askoren iritzi eta bizipenak ikusteko aukera izango da. Hauek parte hartuko dute: batetik, Juanjo Kintela UNEDeko irakaslea egongo da Goiena Telebistan. Hura psikologoa eta psikomotrizista da eta bere esperientzien berri emango digu. Bestetik, Maite Perez, irakasle eta psikologoa. Berritzeguneko Haur eta Lehen Hezkuntzako teknikari ere bada. Hezkuntzan diharduten bi lagun horiez gain, guraso elkarteko ordezkaritza bat ere izango da *Berbaire*-n: Arrasateko Herri Eskolako Guraso Elkarteko buru Ikerne Altube. Eta, azkenik, lan esparruko ordezkaritzarik ere ezin falta: hain zuzen, ELA sindikatuko Amagoia Lasagabaster izango da mahai inguruan.

## telebegi

**Edorta Arana** > www.goiena.net/blogak/hamaika

### Alperrik galduta

Kronometroak martxan dituzte alderdi politikoetan. Albistegietan, doako tarteetan, eztabaidetan eta elkarrizketetan, euren hautagaiei eskaintzen dieten tartea neurtzeko prest dira. Mitin-lekuetatik telebistara salto eginak dira aspaldi hauteskunde-kanpainak. Botoemaile izateko lehenengo ikus-entzule izatea beharrezkoa dela sinistuta daude, nago. Telebistan agertzea da izaera propioa edukitzeko atea. Ageri dena da. Bestela, bapez.

Lerro hauek irakurri orduko jakina izango da ezker abertzaleari nolako izaera aitortu dioten epaile eta politiko espainiarrek. Baina, horren aurretik ere, egunak dira EITBk minutuak, agerraldiak eta hizketarako aukerak banatuta dituela eta horietan hutsaren hurrengoa da ezker abertzaleari emandakoa. Inork esango du Hauteskunde Batzordeak markaturikoen arabera hartzen dituztela erabakiak, legeak hala aginduta. Ez ba. Informazioaren interesak, aniztasunak, iritzi desberdinen arteko trukaketak eta, oro har, zerbitzu publikoak aukera zuen beste era batera gauzak antolatzeko. Ez dute egin.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Elena Odriozola ilustratzailea; *Errenta Aitorpena euskaraz* kanpainaren gainean Josean Amondarain eta Oskar Elizbururekin; zinemaren geltokian proposamenak Amaia Labaienen eskutik; eta abar.

**Domeka**
**10:00**Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Meteorologiaren geltokia
Merkatu txikiaren geltokia
Elkarteen geltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 4**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Berbaire.**14:15** Musikantoi. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ikusten. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu. **16:15**Eltze beroa **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Gernikako bonbardaketa . **18:45**Albisteak. **19:15** Erreportajea . **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Ikusten. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Kirolari. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 5**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Boboboak, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Kirolari. **12:00** Astekoak. **12:15**Klika. **12:45** Eltze beroa **13:30** Gernikako bonbardaketa. **14:30** Musikantoi. **15:00** Ikusmira. **15:30**Ur eta lur. .**16:00** Didjeridu. **16:30** Illunpean. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00** Hasiberriak. **19:30**Klip@. **20:00**Ikusten. **20:30**Erreportajea.**21:00**Klika. **21:30**5+5. **22:00**Astekoak. **22:15**Klip@. **22:30**Ilunpean. **23:00**Didjeridu. **23:30**Musikantoi. **00:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 6**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Boboboak eta Trikitraka trikitron. **11:00**Ikusten. **11:30**Musikantoi. .**12:00**Ur eta lur. **12:30**Klip@. **13:00**Kirolari.**13:30**Erreportajea. **14:00**Didjeridu. **14:30**Ilunpean. **15:00** Ikusmira.**15:30** Marrazki bizidunak. **18:00**Kirolari. **18:30**IIkusten. **19:00** Hasiberriak. **19:30** Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Gernikako bonbardaketa. **21:30**Klika. **22:00**Didjeridu. **22:30** Ikusten. **23:00** Erreportaia.**23:30**Ilunpean-.**00:00** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 7**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero.**13:45**Gaurkoak.**13:47** Teknopolis.**14:15** Ikusten.**14:45**Albiste aurrerapena.**15:15**Ilunpean. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Bizitegia. **16:15**Kirolari. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ur eta lur. **18:45**Albisteak. **19:15** Erreportajea . **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** 2 x 2. **22:15**Hasiberriak. **22:45**Berriak. **23:15**Didjeridu. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Ikusmira. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena,8**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Boboboak. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Harmaillatik. **14:15**2 x 2. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa.**15:45** Gaurkoak. **15:47** Telesaia. **16:15**Ikusmira **16:45** Albisteak. **17:15** Boboboak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Ilunpean .**18:15** Bizitegia. **18:45**Albisteak. **19:15** Harmaillatik. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak. **20:45**Berriak. **21:15**Mahai inguru berezia. **22:15**Harmaillatik. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Musikantoi. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena,9**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Mahai inguru berezia. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ur eta lur **15:45** Gaurkoak. **15:47**Didjeridu. **16:15** Eltze beroa. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Harmaillatik. **18:15**Eltze beroa. **18:45**Albisteak. **19:15** Teknopolis. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Bertsoak. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Berbaire. **22:15**Telesaila. **22:45**Berriak. **23:15**Berbaire. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Ur eta lur. **00:15**Emisio amaiera

**Eguena,10**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Boboboak. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Bertso saioa. **14:15**Erreportajea. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Eltze beroa.**15:45** Gaurkoak. **15:47** Telesaia. **16:15**Ikusmira **16:45** Albisteak. **17:15** Boboboak. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Eltze beroa .**18:15** Teknopolis. **18:45**Albisteak. **19:15** Klika. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Boboboak. **20:45**Berriak. **21:15**Berbaire. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Musikantoi **22:15**Didjeridu. **22:45**Berriak. **23:15**2 x 2. **23:45**Gaurkoak. **23:30**Ilunpean. **00:15**Emisio amaiera.

# Maiatzak 4-11

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

## Musika



ARRASATE
**> Londresko punk-rocka bihar, Beaux Degats taldearekin**
Beaux Degats talde ingelesarekin batera bi euskal talde arituko dira: Bergarako Fly Shit hardcore taldea eta JAN talde bizkaitarra, hain justu ere. Gaztetxean izango da emanaldia, 22:00etan hasita.

## Lehiaketa



BERGARA
**> Kirol argazkien lehiaketa deitu dute Udalak eta Pol-Pol argazki taldeak**
EAEn bizi den edozeinek har dezake parte. Gaia kirola da eta zuri-beltzean zein koloretan aurkez daitezke lanak. Lanak bidaliko dira Udaleko Kirol Zerbitzura (San Martin plaza, 20570) irailaren 12a aurretik. Argibideak: 943 76 30 90 (Benito).

## Erakusketa



OÑATI
**> Ludovico Rodriguez kantabriarraren margo erakusketa**
Ludovico Rodriguez margolari kantabriarrak margo erakusketa ireki du kultura etxeko erakusketa aretoan. Artistaren akuarelak hilaren 25era arte egongo dira ikusgai, astelehenetik egubakoitzera, 18:30etik 20:30era.

## Antzerkia

ARRASATE
**> Gaztetxoendako kale antzerki emanaldia gaur, barikua**
*Kanpanolue* delako emanaldia izango da. Arizmendi ikastolak antolatu du
Herriko Plazan, 18:30etik 19:30era. Eguraldi txarrarekin San Viator Handin.

## Musika

ARRASATE
**> Never Surrender taldeak kontzertua egingo du**
Herriko hainbat musikariren kolaborazio izango dute. Besteak beste arituko dira Puñetazo, Des-Kontrol eta Gose taldeetako musikariak. Ostean, MC6, Los Deaz eta JFK.
Gaur, barikua, 22:00etan, gaztetxean.

BERGARA
**> Etxarri-Aranatzeko abesbatza**
Hamalau kanta eskainiko dituzte nafarrek.
Zapatuan, 20:00etan, Santa Marina parrokian. Sarrera doan.

BERGARA
**> Jai elektronikoa Txapa Irratiaren eskutik**
Yotox, Krell eta Fairlight taldeek esku hartuko dute.
Bihar, zapatua, 22:30ean, gaztetxean.

ARRASATE
**> Denial taldeak kontzertua egingo du hilaren 10ean**
Arrasateko taldeak zuzeneko emanaldia egingo du eguenean, San Pankrazio eguna.
Unibertsitateko jaiaren barruan egingo dute emanaldia.

OÑATI
**> Piano emanaldia 29. Musikegunak egitarauaren barruan**
Esther Barandiaran eta Itxaso Aristizabal piano jotzaileek duoa egingo dute. Besteak beste, Aita Madinaren lanak joko dituzte.
Etzi, domeka, 19:30ean, Santa Ana antzokian.

BERGARA
**> Elecktronische jaia kanpoko eta bertako DJekin**
Kiki, LoSoul eta Bine disko jartzaileekin batera bertakoak ere arituko dira: DJ Balza eta Tito, esate baterako.
Bihar, zapatua, 00:00etan, Jam aretoan.

## Erakusketak

ARRASATE
**> Elena Odriozola ilustratzailearen erakusketa Kulturaten**
Publizitate agentzia baten ekin zion lan munduari Odriozolak, baina 1998an hura laga eta marraztera dedikatzea erabaki zuen. Ordutik hainbat sari jaso ditu.
Maiatzaren 13ra arte, Kulturaten.

## Hitzaldiak

BERGARA
**> Bizkarra eta jarrerak zaintzeko aholkuak**
Alicia Magdalena mediku eta hezitzailearen eskutik.
Hilaren 10ean, 17:00etan, San Joxepe erretiratuen elkartean.

PROPOSAMENA

ANTZUOLA
### > Euskal Herriko alardeen gaineko mintegia

Eusko Ikaskuntzak, Antzuolako Udalak eta Mairuaren Alardearen Kultur Elkarteak antolatu dute. Helburua da jai giroko fenomeno horren aniztasun eta zabalkundea aditzera ematea eta haren orainaren eta etorkizunaren inguruko gogoeta egitea. Bihar, zapatua, Eusko Ikaskuntza egiten ari den Antzuolako alardearen inguruko ikerketa soziokulturala aurkeztuko dute. Domekan, berriz, zortzi herritako alardeen topaketa izango da.
Zapatuan eta domekan.



## Lehiaketak

DEBAGOIENA
**> Mundumira jaialdiak bi lehiaketa deitu ditu**
Bata da ikastetxeetarako lehiaketa, eta ibar osora zabalik dago. Bi maila daude: 6-9 eta urtekoak 10-12 urtekoak. Lehiaketaren gaia da: *Munduari bira*. Parte hartu nahi dutenek Aretxabaletako kultura etxera bidali beharko dituzte lanak, maiatzaren 15a baino lehen. Beste lehiaketa da grafitiena. 15 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute. Baita taldeka ere –gehienez lau lagun, eta gutxienez bat ibarrekoa izan edo bertan bizi behar da–. Lehiaketa ekainaren 1ean izango da, Aretxabaletako plazan. Gaia: *Bost kontinenteak*. Izenematea Aretxabaletako kultura etxean, maiatzaren 21era arte.
Argibide gehiago: 943 71 10 27.

## Ospakizunak

BERGARA
**> Iñurrategi, Kilometroak 07ren aldeko mendi aste bukaeran**
*Nire Himalaya* ikus-entzunezkoa azalduko du Alberto Iñurrategik gaur, barikua, 22:00etan, UNEDeko aretoan. Bihar, euskal herrien arteko IV. euskal joko jaialdia jokatuko da 17:00etan, Aranzadi ikastolako jolaslekuan. Etzi, domeka, Urkulura itzulia, mendi bizikletan. Bi ibilaldi izango dira: 25 kilometrokoa eta 35ekoa. Irteera 09:30ean, Aranzadiko jolaslekutik.
Gaur, bihar eta etzi.

ARRASATE
**> Arizmendik ikastolaren eguna ospatuko du bihar**
Besteak beste egongo dira: Argitxori ongietorria, puzgarriak, txosnak, tailerrak eta ipuin kontakizunak.
Bihar, zapatua, 10:30ean hasita, Ferixalekuan eta Uarkapen.

OÑATI
**> Txantxikuk urtemuga ospatzeko ekintzak antolatu ditu**
Gaur, barikua, gurasoendako jaialdia egingo dute, 18:00etan, Santa Anan. Bihar, zapatua, egongo dira, besteak beste: 11:00etan jolasparkea Santa Anan eta 18:30ean, Pirritx eta Porrotx, kiroldegian.
Gaur eta bihar.



Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2007-05-04

# Japoniera, gero eta hurbilago

**SAREAN** Japoniera-euskara hiztegi berria plazaratu du Interneten Arrasateko GoiHata itzulpen enpresak

**ELKARLANA** Oraingoz, 20.000 hitz inguru jaso dituzte eta aurrerantzean edonork osatu ahal izango du

**ANTZEKOTASUNAK** "Japonieraz, euskaran bezala, aditza beti esaldiaren amaieran jartzen da", dio Goikoleak

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Japoniera-euskara hiztegia plazaratu du Arrasateko GoiHata itzulpen enpresak. Jon Goikolea eta Chieko Hata senar-emazteek bi urtez jardun dute lanean Interneten hiztegia eskuragarri jartzeko. Oraingoz, 20.000 hitz inguru jaso dituzte *goihata.com/eu/japoniera-hiztegia/* helbidean eta aurrerantzean japonieraz eta euskaraz dakien edonork osatu ahal izango du: "Wikipedia sareko entziklopediarekin bezala, denon artean hiztegia osatzea da gure asmoa; gurekin harremanetan jarri eta erregistratu besterik ez dago. Elkarlanerako aukera ederra eskaintzen du Internetek", diosku Goikoleak.

Interneten ez baina aurretik bazegoen euskara-japoniera hiztegi bat, Yoshida Hiromik egina eta 6.000 hitz inguru batzen dituena. Egileen ustez, Interneten horrelako hiztegi bat jartzeko egin den lehen saiakera da honako hau: "Doaneko zerbitzua da, irudiak eta ahotsa sartzeko aukera eskaintzen duena. Azken baten, irudiaren laguntzarekin *abarka* moduko hitz bat hobeto ulertzen da eta beste horrenbeste gertatzen da hitz japoniar askorekin...". Antzekotasunak ere badira, Goikolearen arabera: "Japoniar hizkuntzan, euskaran bezala, aditza beti esaldiaren amaieran jartzen da eta ahoskera ere nahiko erraza gertatzen da euskaldun batentzat. Gainera, antzerakoak diren hitz apur batzuk badaude: *musuko* (mutiko), *tori* (txori), *chichi* (titia)...".

**BERTSOGINTZARAKO ERE APROPOSA**

Hitzen bilatzaileak bilaketak egiteko lau aukera eskaintzen ditu: hitzen hasiera, bukaera nahiz edukia kontuan izanda edo bilaketa zehatzak egiteko aukera dago. Bukaeretan oinarrituriko bilaketak egiten dituenez, bertsogintzarako ere aproposa izan daiteke. Goikolearen hitzetan, "ez daukagu japoniar bertsolariren berririk baina gauza ederra litzateke Tokion Andoni Egaña bat sortzea...".



**KULTURAK HURBILDUZ** Jon Goikolea eta Chieko Hata senar-emazteek bi urtez jardun dute hiztegiarekin lanean. GOIENKARIA

## ahobero

**"Chelsea izan da talderik onena, partidu osoan irabazteko ahalegina egin duena, eta ez da Atenasko finalean izango"**

**Jose Mourinho**
> Chelsea taldeko entrenatzailea

Palmaresa ez da entrenatzaile handien maila ematen duena bakarrik. Galtzea egokitzen zaienean agerian geratzen dira ustezko izar asko.

## iturri onetik

**Bergarako Mendekoste jaietan zezen-plaza jarriko dute Seminarioan**

Bi urtean Bergarako jaietan zezen-plaza barik egon ostean, aurtengo Pazkoetan zezen-plaza jarriko dute Seminarioan. Zezenzaleak taldeak, Udalaren laguntzaz, hainbat ekitaldi antolatu ditu maiatzaren 25etik 29ra bitarterako. Besteak beste, errekortadoreen ikuskizuna izango da domeka arratsaldean, txekorrak zapatutik martitzenera (goizez) eta gaztetxoendako errekortadoreen eskola baita.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Akzionekoa

Bada urte t'erdi osaba Xanti ehortzi genuela. ANVko gudari izan zen gerran, Akzionekoa esaten zuen berak. Gorriak ziren Intxaustitarrak, eta gorriak ikustea tokatu zitzaien, gerra ondorenetan.

Hil baitzen, ez da iritsi Xanti egunotako ANVren *revival*-a ikustera. Gustura egingo zukeen barre, begiak zimurtuta, eman diguten ikuskizunarekin: Garzon galdezka ea ETAk sortu ote duen bera baino 30 urte zaharragoa den ANV; edo, urte luzez xume izan den alderdia, nola agertu den, derrepente, hautagaiz gainezka, fitxaje berri ospetsuak eginda.

Bihotz oneko ere bazen Xanti. Eta, barre egin ondoren, ontzat emango zukeen jokaldia, aurrerabidean ate guztiak ez ixte aldera. Garzonek eten ez duena, ez zukeen trabatuko osaba Xanti Akzionekoak.

## ai, ene!



**Ordenagailuak gustuko ez dituztenendako lezioa**

Ordenagailuak ez dituzuela gustuko? Galleten munstroak 1971n egiten zuena egin dezakezue: aparailua jan.

http://tinyurl.com/3xrsb7

